

**HEZKUNTZA FISIKOA ETA BERE
DIDAKTIKA**

Oihane LARREA SUBIZA

**AUCOUTURIER
METODOLOGIA HAUR
HEZKUNTZAKO
PSIKOMOTRIZITATE
SAIOETAN:
METODOLOGIAREN
ALDAKETA**

TFG/GBL 2020

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Grado en Maestro de Educación Infantil
/
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

***AUCOUTURIER METODOLOGIA HAUR
HEZKUNTZAKO PSIKOMOTRIZITATE
SAIOETAN: METODOLOGIAREN
ALDAKETA***

Oihane LARREA SUBIZA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Oihane LARREA SUBIZA

Izenburua / Título

Aucouturier metodologia Haur Hezkuntzako psikomotrizitate saioetan:
Metodologiaren aldaketa

Gradua / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y
Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Imanol ECHARRI GARCÍA

Saila / Departamento

Osasun zientzia Dptua. / Dpto. Ciencias de la salud

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2019/2020

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak, Haur Hezkuntzako ezagutza berriak barneratzeko eta ondorioz, Haur Hezkuntzako Irakasle Gradu ikasketak eta amaierako lana egiteko bidea eman didate. Lana hau burutzeko, ezinbestekoak izan dira lau urteetan izan ditugun irakasgai guztien lanketa, izan ere, guztietatik zenbait ideia atera izan ahal ditudalako. Gainera, esan dezaket, Gradu Amaierako lan honetan landutako arlo guztiak, etorkizunean irakasle izateko baliagarriak izango zaizkidala,

Didaktika eta diziplinako moduluak ordea, ikasleekin alor konkretuak lantzeko prozesua nolakoa izan behar den erakutsi didate. Hauetan, Haur Hezkuntzako Curriculumarekin lan egiten ikasi behar izan dugu, hau, tresna eta baliabide moduan erabiliz. Lan honekin lotzearren, curriculumeko eduki, helburu eta irakaskuntzako metodologia ezberdinak ezagutzeak, aztertu ahal izan dudan aldaketa metodologikoaren prozesua hobeto ulertzeko aukera eskaini didate.

Halaber, Practicum moduluari esker, orain arte teorian ikusitako guztia praktikara eramatea lortu dut. Niri dagokidanez, praktikak 3-6 urte bitarteko haurren ezaugarriak, beharrak, gaitasunak... zuzenean ezagutzeko eta adin horietako haurrekin lan egiteko aukera eskaini didate. Gainera, ikastetxe bateko funtzionamendua gertutik ezagutzeko eta ulertzeko aukera ere izan dut, nire formakuntza prozesua osotasunean bermatuz.

Azkenik, aukerako moduluak, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan mugimendua eta haurren adierazpen psikomotorrak lantzeko baliabideak ezagutzeko aukera eman didate. Honi esker, lan hau egiteko momentuan, psikomotrizitatearen gaia aukeratzea erabaki nuen. Aukerako moduluetan soilik topatu dut gai hauen inguruan formakuntza eta ikaskuntzak jasotzeko aukera, beraz, oso interesgarria iruditzen zitzaidan psikomotrizitatea gai nagusi bezala daukan lan bat egitea. Modu honetan, psikomotrizitateak eta mugimenduak haurren garapen prozesuan duen garrantziaz kontzientzia pizteko.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, gaztelaniaz idatziko dira lanaren "Sarrera" eta "Ondorioak" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den derrigorrezko laburpena ere.

Laburpena

Ikastetxeetan, betidanik, garrantzi handiagoa eman zaie garapen kognitiboa bermatzeko lantzen diren edukiei, haurren garapen pertsonala garatzen dituzten beste aspektuei baino. Gaur egun, haurren garapen psikomotorra, afektiboa, emozionala... bigarren maila batean jarraitzen dute, hala ere, geroz eta ikastetxe gehiagotan hasi dira egoera horri erantzun bat ematen.

Askotan psikomotrizitate lantze hutsarekin, arestian azaldutako egoerari erantzuten zaiola uste ohi da, nahiz eta askotan ez den nahikoa. Oraindik ere, ikastetxe askotan, psikomotrizitatea lantzerakoan, garrantzi handiagoa ematen zaie aspektu psikologikoei, psikomotorrei baino.

Gauzak horrela, lan honen helburua honakoa dela esan dezaket. Ikastetxe batean egindako psikomotrizitate saioen metodologia aldaketaren azterketa baliatuz, haurren garapen globala bermatzen duen metodologia eta honetan oinarritutako saioak azalduko dira, honek, egun bizi dugun egoerari aurre egiteko baliagarria izango delakoan.

Hitz gakoak: Psikomotrizitatea; Aucouturier; Metodologia Aldaketa; Haur Hezkuntza; Garapena.

Resumen

En las escuelas siempre han primado los aspectos de desarrollo intelectual, de tal manera que los aspectos de desarrollo motor y personal se han ido quedando en un segundo plano. El desarrollo personal, afectivo, emocional... sigue estando en un segundo plano por mucho que cada vez sean más las escuelas que empiezan a darles el protagonismo que deberían de tener.

Muchas veces, parece que, con el simple hecho de trabajar la psicomotricidad, conseguimos ese desarrollo global que necesitan los niños y las niñas, pero generalmente no es suficiente, ya que, en el momento de trabajar la psicomotricidad, priorizamos los aspectos psicológicos ante los psicomotores.

Por eso mismo, en este trabajo lo que pretendo es dar a conocer la manera de dar con un desarrollo global mediante la psicomotricidad, basándonos en la metodología de Bernard Aucouturier. Para ello, analizaré el proceso realizado

por una escuela, en la que realizan un cambio metodológico en la psicomotricidad.

Palabras clave: Psicomotricidad; Aucouturier; Cambio Metodológico; Educación Infantil; Desarrollo.

Abstract

Aspects of intellectual development have always taken precedence in schools, leaving in the background the aspects of the motor and personal development. The personal, affective or emotional development, among others, are still in the background even if nowadays, more and more schools are starting to give them the prominence they should have.

Many times, it seems that simply by working psychomotricity, we get that global development that children need, but usually this is not enough because when working psychomotricity we tend to prioritize the psychological aspects over the psychomotor aspects.

That's why, in this work I intend to make known how to find a global development through psychomotor sessions, taking Bernad Aucouturier's methodology as a starting point. To do this, I will analyze the process carried out by a school in which a methodological change has been made in psychomotricity.

Key words: Psychomotricity; Aucouturier; Methodological Change; Early Childhood Education; Development

Aurkibidea

Sarrera / Introducción	1
1. Marko teorikoa	7
1.1. Psikomotrizitatea	7
1.1.1. Psikomotrizitatearen definizioa	7
1.1.2. Psikomotrizitatearen sorrera	9
1.1.3. Psikomotrizitatearen bilakaera historikoa	9
1.1.4. Psikomotrizitatearen helburuak	11
1.1.5. Psikomotrizitatearen aplikazio desberdinak	13
1.2. Aucouturier eta bere metodologiaren egitura	15
1.2.1. Aretoaren egitura	17
1.2.2. Psikomotrizitate saioaren urratsak	18
1.2.3. Psikomotrizistaren jarrera : begirada	24
2. Atal praktikoa	26
2.1. Praktiketako ikastetxeko psikomotrizitate saioetako metodologia aldaketaren zergatia	26
2.1.1. Metodologia aldaketa aurreko saioen eredua	27
2.1.2. Metodologia berria aldaketa egitearen zergatia	30
2.2. Metodologia aldaketa egin aurretik jorratu beharreko ardatzak	32
2.2.1. Espazioa	33
2.2.2. Denbora	34
2.2.3. Hezitzailearen jarrera	35
2.3. Metodologia aldaketa lortzeko, praktiketako ikastetxeak proposatutako prozesuaren eredua	37
2.3.1. Espazio eta materialei lotutako aldaketa prozesua	38
2.3.2. Saioen iraupena eta ordutegiaren berrantolaketa prozesua	39
2.3.3. Hezitzaileen formakuntza	40
2.3.4. Aucouturierren metodologiarekin aurrera eramandako saioen eredua, psikomotrizista beten eskutik	41
2.4. Metodologia berriarekin landutako saioen analisisa	42
2.4.1. Aucouturierren metodologian oinarritutako saioen egituren analisisa	43
2.4.2. Hezitzaileen jarrera psikomotrizista gisa	50
2.5. Psikomotrizitate metodologia berriarekin, saioak aurrera eramateko proposamen eredua	53
2.5.1. Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako proposamena	54

2.6. Praktika psikomotorraren metodologia aldaketaren inguruko hausnarketa kritikoa	62
Ondorioak / Conclusiones	65
Bibliografia	69

Irudien Aurkibidea

1. Figura: Autores reconocidos del Psicoanálisis	2
2. Figura: Estructura general del trabajo	7
3. Irudia: Psikomotrizitate kontzeptua	8
4. Irudia: Psikomotrizitatearekin haurrek bizi duten heltze ibilbidea	12
5. Irudia: Psikomotrizitate aplikazio desberdinak	15
6. Irudia: Saioa komentatzen eta ipuin kontaketa haurrek bizi duten prozesua	21
7. Irudia: Koordinazio zirkuituaren eredua	29
8. Irudia: Garapen motorra eta fisikoa ebaluatzeko erabilitako eredua (1)	30
9. Irudia: Garapen motorra eta fisikoa ebaluatzeko erabilitako eredua (2)	31
10. Irudia: Motrizitate adierazpenerako espazioan erabiltzen diren eraikuntzen eredu bat	34
11. Irudia: Berrerabilitako egurrezko xafla	38
12. Irudia: Berrerabilitako mahaia	39
13. Irudia: Eskuz egindako oihalezko txurroak	39
14. Irudia: Eskuz egindako oihalezko blokeak	39
15. Irudia: Harresiaren eredua	45
16. Irudia: Harresia bota aurreko momentuaren eredua	45
17. Irudia: Ekintza sinboliko baten adibidea	46
18. Irudia: Ekintza sensoriomotor baten adibidea	46
19. Irudia: Ekintza sensoriomotorrerako espazioa	47
20. Irudia: Ekintza sinbolikorako espazioa	47
21. Irudia: Marrazkia egiteko momentuaren adibidea	48
22. Irudia: Hezitzaileak psikomotrizista gisa jorratu behar dituen aspektuak.	53

Taulen Aurkibidea

1. Taula: Psikomotrizitate klasikoaren eta bizipenezko psikomotrizitatearen arteko desberdintasunak	10
2. Taula: Psikomotrizitate gelako materialaren zerrenda	18
3. Taula: Ekintza sentoriomotorren sailkapena	20
4. Taula: Psikomotrizitate saioen egitura	25
5. Taula: Psikomotrizitate saio libreen eredua	28
6. Taula: Psikomotrizitate saio gidatuen eredua	29
7. Taula: Metodologia aldaketa egin aurretik, jorratutako ardatz bakoitzaren prozesuaren laburpena	36
8. Taula: Eskolan sortutako materialen adibideak	38
9. Taula: Psikomotrizitate gelako ordutegi berriaren eredua	40
10. Taula: Psikomotrizitate saioaren analisiaren laburpena	49
11. Taula: H.H.1. Mailako psikomotrizitate saioen laburpena	56
12. Taula: H.H.2. Mailako psikomotrizitate saioen laburpena	58
13. Taula: H.H.3. Mailako psikomotrizitate saioen laburpena	60

SARRERA / INTRODUCCIÓN

Hoy en día, en este mundo, todo cambia con mucha frecuencia, por eso mismo, la Educación Infantil, también es algo que se ve afectado por todos esos cambios.


Los factores más comunes que afectan a la Educación Infantil, son los relacionados con el núcleo familiar y los modelos de familia, ya que estos afectan de manera directa en la educación. Por lo tanto, se podría decir que dichos cambios, también afectan de manera directa al sistema educativo y la Educación Infantil.

Por todo ello, como profesionales, es de vital importancia que fomentemos y aseguremos la relación entre la escuela y las familias. Esta relación entre la escuela y las familias permitirá que tengamos una información directa del niño/a en todo momento y de este modo, podremos identificar las necesidades, habilidades o intereses de los niños y las niñas.

Como profesionales, debemos saber que desde el momento en el que el niño o la niña nace, posee multitud de habilidades, por lo que debemos de ver al niño o la niña como una persona activa en todo momento.

Mediante dichas habilidades, el niño/a permanece en todo momento en contacto con los adultos, los objetos, el alrededor... Para poder garantizar ese contacto, debemos de tener en cuenta que será necesario el bien estar emocional y afectivo del niño/a. De este modo el niño o la niña se convertirá en protagonista y podrá demostrar interés, autonomía, inquietud... Para así, poder experimentar y vivir mientras construyen sus pensamientos.

En relación a todo lo dicho anteriormente, tengo que decir que este trabajo está basado en la teoría Psicoanalítica, por lo tanto, en todo momento defenderé la importancia del movimiento y el cuerpo en el desarrollo de una persona, ya que será uno de mis objetivos en este trabajo.



1.Figura. Autores reconocidos del Psicoanálisis

Como el propio título de este documento describe, en este trabajo he querido centrarme especialmente, en las ideas de Bernard Aucouturier. Su metodología es algo que había escuchado en muchas ocasiones, por lo tanto, centrarme en ella era también uno de mis objetivos.

Esta metodología, es una de las que han ido tomando protagonismo en los últimos años, por lo tanto, me parecía muy interesante saber el porqué de ese protagonismo y poder conocer sus objetivos estrategias y maneras de llevarse a cabo. Para así, poder crear mi propia reflexión del uso de esta metodología.

Aucouturier en todo momento ve al niño/a en el centro del proceso de aprendizaje, dándole así el máximo protagonismo. Para ello, les da mucha importancia a aspectos como; el espacio en el que se realiza la sesión de psicomotricidad y a la metodología con la que se trabajara en estas sesiones. En este espacio, mediante la psicomotricidad, el niño o la niña tendrán la oportunidad de experimentar sus propias vivencias, producciones y expresiones, de tal modo que el adulto tendrá la posibilidad de evaluar el desarrollo del niño/a mediante la observación.

Mediante la metodología que propone Bernard Aucouturier, las sesiones de psicomotricidad tendrán una estructura concreta y del mismo modo las

características de la duración, el espacio y los materiales también estarán previamente definidos

La psicomotricidad siempre me ha parecido uno de los aspectos mas importantes de la Educación Infantil. Los niños y las niñas necesitan moverse para descubrir, investigar... y así, poder desarrollarse de manera global. Es decir, mediante la psicomotricidad el niño tiene la posibilidad de desarrollar sus habilidades cognitivas, afectivas, motoras de manera global.

Por eso mismo, me parece imprescindible, decir que, mediante las sesiones de psicomotricidad, le damos al niño/a la oportunidad de descubrir sus límites, habilidades, necesidades... de manera autónoma. Por lo tanto, teniendo en cuenta que estos aspectos son de los mas importantes en la etapa de la Educación Infantil, podremos garantizar así un buen proceso de aprendizaje.

Ahora sí, después de explicar el tema que voy a tratar en este trabajo, a continuación, definiré los objetivos específicos que pretendo conseguir mediante este trabajo:

- Conocer los beneficios que tiene la psicomotricidad en la Educación Infantil
- Analizar la importancia de la psicomotricidad en el desarrollo de los niños y las niñas
- Conocer los diferentes posibles usos de la psicomotricidad
- Analizar las diferentes actividades que se dan mediante la psicomotricidad
- Poder conocer al niño o la niña mediante su cuerpo o sus expresiones corporales
- Conocer los aspectos concretos que se deben de tener en cuenta a la hora de elegir la metodología de las sesiones de psicomotricidad
- Describir el proceso que tiene que darse para realizar un cambio metodológico en las sesiones de psicomotricidad
- Preparar un espacio adecuado al desarrollo del niño o de la niña
- Conocer y aprender cual tiene que ser la actitud que debe de tener el adulto como psicomotricista
- Tomar conciencia de los beneficios que se obtienen mediante este método de psicomotricidad

- Reflexionar sobre las actitudes que se adquieren en las sesiones de psicomotricidad

En relación a todo lo dicho anteriormente, a continuación, nombrare las competencias también adquiridas, a la hora de realizar este Trabajo de Fin de Grado.

- **COMPETENCIAS BÁSICAS**

- *CB2:* Que los estudiantes sepan aplicar sus conocimientos a su trabajo o vocación de una forma profesional y posean las competencias que suelen demostrarse por medio de la elaboración y defensa de argumentos y la resolución de problemas dentro de su área de estudio
- *CB3:* Que los estudiantes tengan la capacidad de reunir e interpretar datos relevantes (normalmente dentro de su área de estudio) para emitir juicios que incluyan una reflexión sobre temas relevantes de índole social, científica o ética
- *CB4:* Que los estudiantes puedan transmitir información, ideas, problemas y soluciones a un público tanto especializado como no especializado

- **COMPETENCIAS GENERALES**

- *CG1:* Conocer los objetivos, contenidos curriculares y criterios de evaluación de la Educación Infantil.
- *CG2:* Promover y facilitar los aprendizajes en la primera infancia, desde una perspectiva globalizadora e integradora de las diferentes dimensiones cognitiva, emocional, psicomotora y volitiva.
- *CG3:* Diseñar y regular espacios de aprendizaje en contextos de diversidad que atiendan a las singulares necesidades educativas de los estudiantes, a la igualdad de género, a la equidad y al respeto a los derechos humanos.
- *CG9:* Conocer la organización de las escuelas de educación infantil y la diversidad de acciones que comprende su funcionamiento. Asumir que el ejercicio de la función docente ha de ir perfeccionándose y adaptándose a los cambios científicos, pedagógicos y sociales a lo largo de la vida.

- *CG11*: Reflexionar sobre las prácticas de aula para innovar y mejorar la labor docente Adquirir hábitos y destrezas para el aprendizaje autónomo y cooperativo y promoverlo en los estudiantes

- **COMPETENCIAS TRANSVERSALES**

- *CT2*: Demostrar una competencia lingüística en castellano y, en su caso, en euskera equivalentes a un nivel C1 del "Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación" del Consejo de Europa

- **COMPETENCIAS ESPECÍFICAS**

- *CE1*: Conocer los objetivos, los contenidos curriculares, la organización, la metodología, y los criterios de evaluación de la Educación Infantil.
- *CE2*: Promover los aprendizajes en la primera infancia desde una perspectiva globalizadora e integradora de las dimensiones cognitiva, emocional, psicomotora y volitiva.
- *CE3*: Diseñar espacios de aprendizaje en contextos de diversidad y en espacios multiculturales y multilingües, atendiendo las necesidades singulares del alumnado, la igualdad de género, la equidad, y el desarrollo de los derechos humanos.
- *CE5*: Reflexionar sobre las prácticas de aula para fomentar la innovación. Adquirir hábitos y destrezas para el aprendizaje autónomo y cooperativo, y conocer modelos de gestión de calidad.
- *CE9*: Conocer la organización de las escuelas de educación infantil y su funcionamiento en colaboración con los distintos sectores de la comunidad educativa y del entorno social.

Para terminar con la introducción de este trabajo, realizaré una breve explicación de la estructura que he utilizado a la hora de realizar este trabajo.

- **Elección del tema y de los aspectos a tratar**

La elección del tema la realice basándome en las experiencias que había tenido hasta el momento. Había trabajado la psicomotricidad en la etapa 0-3 de Educación Infantil y el poder conocer trabajarla y conocer su funcionamiento en la etapa 3-6 era algo que me interesaba mucho.

Decidí centrarme en la metodología de Aucouturier, en primer lugar, porque es una de las metodologías que mas se empieza a trabajar en las escuelas de

Navarra. En segundo lugar, porque en la escuela en la que estaba realizando las prácticas, se estaba realizando un cambio metodológico de las sesiones de psicomotricidad, basado en esta metodología.

Por eso mismo, uno de los objetivos de este trabajo es, poder conocer el funcionamiento de esta metodología, para reflexionar y analizar los beneficios que tiene en el desarrollo de los niños y las niñas.

- **La importancia de la psicomotricidad**

Para poder explicar la importancia que tiene la psicomotricidad en la Educación Infantil, analizare aspectos como la evolución histórica que ha tenido, las diversas formas de definirlo y los beneficios que aporta en el desarrollo de los niños y las niñas.

- **La metodología de Bernard Aucouturier**

Después de abordar el tema de la psicomotricidad, me centrare en realizar un análisis de la metodología de Bernard Aucouturier. Para ello analizare aspectos como características, objetivos, contenidos, principios... de esta metodología.

Para poder realizar el análisis de esta metodología, analizare los aspectos teóricos, pero también los prácticos, por lo tanto, tomare como referencia las sesiones que podre diseñar en la escuela en la que realizo mis prácticas.

- **Propuestas, reflexiones y conclusiones**

En el apartado practico de este trabajo realizare mi propuesta, basándome en el análisis que hare de la metodología de Bernard Aucouturier. Para ello también analizare el proceso de cambio metodológico realizado en la escuela en la que realizo mis prácticas, para así poder conocer de cerca cual es el proceso previo que hay que realizar antes de empezar a diseñar sesiones de psicomotricidad basadas en esta metodología.

Por otro lado, después del análisis practico desarrollare mis propias reflexiones y conclusiones, basadas en todos los aspectos analizados tanto teóricos como prácticos.


- **Información recopilada**

Para poder realizar este trabajo he utilizado diversas fuentes de información. Para poder analizar la metodología de Aucouturier, he utilizado artículos y libros

escritos por el mismo. Utilizando el Google general y el académico, también he conseguido artículos, documentos... Por lo tanto, basándome en toda esa información recopilada de diferentes fuentes, he conseguido abordar la mayoría de los apartados de este trabajo.

Por otro lado, la orientadora del centro de prácticas, tengo que decir que, me ha facilitado muchísima información y documentación relacionada con la psicomotricidad, ya que como psicomotricista especializada dispone de ella.

Por lo tanto, la recopilación de información, podría decir que, también a sido un factor muy importante por el cual he ido adquiriendo conocimientos sobre la psicomotricidad y la metodología de Aucouturier en concreto.



2. *Irudia*. Estructura general del trabajo


1. MARKO TEORIKOA

1.1. Psikomotrizitatea

1.1.1. Psikomotrizitatearen definizioa

Psikomotrizitatearen definizio orokor bat azaltzea ez da batere erraza, esanahi desberdinak dituelako gaur egun. Beraz, denek kontzeptu berdina erabili arren, ulertzeko eta azaltzeko modu ugariak azaltzen dira.

Psikomotrizitatearen kontzeptuak gaitasun kognitibo eta gaitasun motoreei erreferentzia egiten die eta modu honetan, pertsonen garapen globalaren ideia bermatzen du, pertsonak gizaki integraltzat hartuz. (Mendiara 2008)



3.Irudia. Psikomotrizitate kontzeptua

Modu honetan haurren garapen fisiologiko, biologiko, emozional, sozio-afektibo eta kognitiboak ezinbestekotzat hartzen ditu haurren izaera, adimena eta heltze ibilbidearen garapena bermatzeko.

Laburbilduz, esanahia borobiltzeko asmoz, esan dezaket Psikomotrizitatea gizakiaren garapenaren konplexutasuna barne hartzen duen zientzia dela, honen bitartez munduarekiko heltze psikologikoa bermatuz. Bernard Aucouturierrri Hik Hasi aldizkarian egindako elkarrizketa batean, modu honetan definitu zuen psikomotrizitatea:

“Modurik sinpleenean esanda, mugimenduaren eta psikismoaren arteko erlazioa azaltzen duen terminoa. Haurren kasuan, termino horrek agerian jartzen du haurren garapen psikologikoan mugimenduak duen garrantzia. Hau da, psikomotrizitateak gorputzaren mugimenduaren bidezko haurren garapenean jartzen du arreta. Haurren garapen psikologikoa gorputzaren mugimenduaren bitartez ematen da. Gorputzaren bitartez, baina kanpoko munduarekin harremanetan.” (Aucouturier, 2004)

Espainiako psikomotrizisten elkartearen federazioak azaltzen duen definizioa:

“La psicomotricidad es una disciplina que, basándose en una concepción integral del ser humano, se ocupa de la interacción que se establece entre el conocimiento, la emoción, el cuerpo y el movimiento y de su importancia para el desarrollo de la persona, así como de su capacidad para expresarse y relacionarse en un contexto social.”

Partiendo de esta concepción se desarrollan distintas formas de intervención psicomotriz que encuentran su aplicación, cualquiera que sea la edad, en los ámbitos preventivo, educativo, reeducativo y terapéutico” (FAPee, 2020)

1.1.2. Psikomotrizitatearen sorrera

Psikomotrizitatearen terminoa Dupré neuropsikiatra Frantsesaren eskutik izan zuen sorrera. Honek azaldu zuen “ahultasun motrizaren” ideia, nahaste motoreak zituzten kasuekin eta motrizitateak, adimenak eta afektibitateak daukan elkarrekiko garrantziaren ideia azaldu zuen, gizakiaren garapenaren oinarritzat hartuz.

1925ean, Wallonek, funtzio tonikoak komunikazioan eta emozioen sorreran duen garrantzia azpimarratu zuen, eta aldi berean, Piagetek, ekintza komunikazioaren eta emozioen jatorria zela baieztatu zuen.

1969an Educacion Psicomotriz y Retraso Mental liburuaren argitalpenaren eskutik, psikomotrizitateak bere autonomia lortu zuen hezkuntzako jarduera original bat bilakatuz, bere objektu eta baliabide zehatz eta propioekin.

Urte berean, Escuela Municipal de Expresión ireki zen Bartzelonan, zeinetan Frantziako eragina nabarmendu zen Lapierre eta Aucouturierren parte hartzeri esker. Bi autore hauek, psikomotrizitatearen disziplina hau, irakasleen artean hedatzea lortu zuten, osasun arloko profesionalen artean baino hedatuagoa egotera ailegatuz, Frantzian gertatu ez zen bezala.

1985an Eskola integrazioa ezartzean, Hezkuntza Bereziaren arloan Psikomotrizitatea eta Psikomotrizitzailea ezarri ziren, azken hau, interbentzio ber hezitzaileetan profesional espezializatutzat. (Del Arco, 2017)

1.1.3. Psikomotrizitatearen bilakaera historikoa

Psikomotrizitatea lantzeko modu desberdin asko egon dira kontzeptu hau sortu zenetik, autore bakoitzak psikomotrizitatea bere modura definitzen duen moduan, metodologia desberdinen bitartez ere aurrera eramaten dituzte haien esku hartzak.

Psikomotrizitatea hasieran metodologia gidatuekin zer ikusia izaten zuen gehienetan, metodo klasikoa bezala ezagutu izan denarekin. Metodologia horien

helburuak zehatzak dira, haurren aspektu konkretuak lantzeko jardueren bitartez proposatu eta aurrera eramaten dira, esate baterako lateralitate lantzeko, oreka...

Metodologia hauen ebaluazioa, aurre-ebaluazio eta amaierako ebaluazio baten bitartez egiten da jarraipen bat egiteko. Aurre-ebaluazioa esku hartzea egin aurretik jasotzen da eta aldiz, esku hartzea aurrera eraman ondoren amaierako ebaluazio bat egiten da ondorioak eta lorpenak ondorioztatzeko.

Bizipenetan oinarritutako psikomotrizitatearen kontzeptua defendatzen zutenek aldiz, beste metodologia baten bitartez aurrera eramaten zituzten haien esku hartzeak, esku hartze hauetan haurrak protagonistak ziren eta mugimenduaren bitartez garapen motorea, afektiboa, kognitiboa...bermatzen zutela defendatzen zuten.

Aipatutako azkeneko metodologia hau oso estuki lotuta doa Bernard Aucouturierrek defendatutako praktika psikomotorrekin, gaur egin aurrera eramaten jarraitzen denetariko bat izanda.

Helduaren jarrera, bi metodologia hauetan konparatzen badugu, desberdintasun nagusiak ere topatu ditzakegu. Heldua ez da saioaren gidaria izango, ez du saioa gidatuko. Haurren behaketa egingo du bigarren plano batetik, beti ere haurren beharrei ere erantzuteko prest. (Mendiara, 2008)

Laburbilduz, taula honetan azaltzen dira psikomotrizitate klasikoaren eta bizipenezko psikomotrizitatearen arteko aldeak:

1. Taula. Psikomotrizitate klasikoaren eta bizipenezko psikomotrizitatearen arteko desberdintasunak


PSIKOMOTRIZITATE KLASIKOA	BIZIPENEZKO PSIKOMOTRIZITATEA
-Ikuspegi analitikoa Adb: Mugimenduei lotutako garapenekin soilik erlazionatu psikomotrizitatea	-Ikuspegi globala Adb: Umea esparru ezberdinak garatzen ditu batera, modu globalean (emozionala, soziala, motorea, kognitiboa...)
-Aurre ebaluaketen bitartez, haurrei buruzko informazioa jasotzen da, proposamenak planteatzeko.	-Haurrei jarduten uzten zaie, gutxinaka behaketaren bitartez informazioa jasotzeko eta proposamenak haien garapen mailletara egokitzeko.

<p>Adb: Haurren mugimenduen garapen maila ezagutzeko, mugimendu zehatzak adierazteko jarduerak proposatu, haurrak behatzeko, jarraian behaketarekin lortutako datu horiekin, psikomotrizitate saioak diseinatzeko.</p>	<p>Adb: Haurren gorputz adierazpenak sustatzeko proposamenak prestatzen dira eta haurren adierazpenak behatuz jotzen dira, modu horretan haurren interesetara moldatuz eta haurren interesa pizteko moduko saioak prestatuz.</p>
<p>-Mugimendu zehatzen lanketari garrantzia ematen diete, horien bitartez haurrak ebaluatuz.</p> <p>Adb: Haurrak daukan adinari dagozkion mugimenduak soilik ebaluatu. Oreka, lateralitatea, koordinazioa...soilik kontutan hartuz.</p>	<p>-Gorputzaren adierazpen libreei garrantzia ematen diete, horien bitartez, haurren bizipenak eta garapenak sustatzeko.</p> <p>Adb: Haurrak psikomotrizitate saioetan adierazten dituzten aspektu guztiei erreparatuz (gorputz, hizkuntza, emozioen adierazpenak...) haurraren garapena behatu.</p>
<p>-Eduki motrizak saioen helburu nagusienak dira</p> <p>Adb: Haurren mugimendu zehatzak (Eskuoin koordinazioa, hanka baten gainean ibiltzeko gaitasuna, saltoak egiteko gaitasuna...) lantzea eta horien ebaluazioa egitea.</p>	<p>-Eduki motrizekin komunikatzeko, pentsatzeko eta sortzeko gaitasuna garatzen dela defendatzen dute.</p> <p>Adb: Hurrek haien mugimendu adierazpenekin garapen kognitiboa, afektiboa, emozionala... garatzea, bere heltze prozesuaren protagonista izanda.</p>

1.1.4. Psikomotrizitatearen helburuak

Psikomotrizitateak haur hezkuntzan dituen eraginak nabarmenak dira zentzu askotan. Gaur egun modu desberdin askotan planteatzen dira psikomotrizitate saioak eta esku hartzeak haur hezkuntzako espazioetan.

Mugimenduaren bitartez garatzen eta adierazten da; etapa honetan globaltasunaren ideia gakoa da: umea esparru ezberdinak garatzen ditu batera, modu globalean (emozionala, soziala, motorea, kognitiboa...). Piageten lanarekin bat eginez, umeak bizi duen heltze ibilbidean hainbat fase daudela esan dezakegu, eta denak ezinbestekoak dira NI-a eraikitzeko. Psikomotrizitateak umeari ibilbide hau bizitzeko aukera eskaintzen dio saio bakoitzean ondorengo eskeman ikusi daitekeen bezala: (Mendiara, 2008)



4.Irudia. Psikomotrizitatearekin haurrek bizi duten heltze ibilbidea

Aurretik azaldutako hau bermatzeko, eta Bernard Aucouturierren ideietan oinarrituz, psikomotrizitate praktikek honako helburu hauek dituztela esan dezaket (Aucouturier, 2000) (Mendiara, 2008)

- **Helburu orokorrak**

- 1 Haurren garapen prozesuari erreparatuz, arlo ezberdinen (kognitibo, afektibo, motriz...) garapen prozesua modu global batean bermatzea.
- 2 Egiteko, jolasteko, eta sortzeko plazerraz baliatuz, funtzio sinbolikoa sustatzea du helburu. Haurra fase sinbolikoko maila ezberdinetatik igaroaraziz, esate baterako, “egiteko plazerra” eta “egiteko edo pentsatzeko plazerraren” prozesuak bizitzeko aukera eta laguntza bermatuz.
- 3 Praktika psikomotorren bitartez, haurrek estutasun egoerei aurre egiteko estrategiak eta gaitasunak ikastea.
- 4 Pentsatzeko plazerra sentituz haurrak pentsamendu operatoriora heltzea.

- **Helburu zehatzak**

- 1 Ekintzen eta jolasen bitartez bakoitzaren heltze psikologikoa sustatu, modu honetan, norbanakoaren garapenean lagunduz.
- 2 Gorputzaren bitartez, bere mugimendu adierazkortasunetik abiatuta haurra ezagutzea.

- 3 Haurra momentu oro errespetuz onartzea, esperientzia propioak dituen eta garatzen dabilen pertsona bezala kontsideratuz.
- 4 Haurraren segurtasun afektiboa eta materiala bermatu, haiek modu autonomoan, haien potentzialtasun guztiak garatu ahal izateko.
- 5 Haur bakoitzaren gorputzetik abiatuta lengoaira doazen sinbolizazio modu konplexuagoen bidea erraztea.
- 6 Sentimenduak, bulkadak, agresibitatea, emozioak era sozializatu batean adierazteko aukera ematea.

1.1.5. *Psikomotrizitatearen aplikazio desberdinak*

- **Hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorra**

Psikomotrizitatearen praktika hau, B. Aucouturier eta A. Lapierreren Educación vivenciada ikuspegitik jaiotako psikomotrizitate eredu bat da. Biek defendatzen dute mugimendua, haurtzaroko garapen prozesuaren elementurik nagusienetariko bat dela. Haurraren garapen osoa mugimenduaren bitartez gauzatzen dela, baita garapen psikologikoa ere, kanpoko munduarekin harremanetan daudelarik. (Aucouturier, 2017)

J. Le Boulch eta P. Vayer bezalako autoreek ere psikomotrizitate praktika hauen ideia indartzen dute. Haurra adierazi dadin sortuko dugun markoak, haurra protagonistatzat hartuta, segurtasun afektibo eta fisikoa bermatu behar du; seguru sentitzeak modu ezberdinetan adierazteko aukerak erraztuko ditu.

Psikomotrizitate praktika honek eskola dauka aplikazio espaziotzat, modu honetan haurraren garapena eta ikaskuntza ororen abiapuntutzat hartuz. Modu honetan haurren hiru gaitasun hezten dira, gorputzarekiko sentimenak eta adierazpenak, gorputzaren hautemate gaitasuna eta ordezkatzeko gaitasuna, sinboloen bitartez mugimenduen errepresentazioa inplikatzeko duena.

- **Berhezkuntza psikomotorra**

Psikomotrizitate praktika honen sorrera XX. Mendearen hasieran koka daiteke, Frantzia indartu zen haur neuropsikiatriaren planteamenduekin batera. Wallomen hasierako ideietatik abiatuta, garatuz joaten da eta ondoren, Ajuriaguerra, Subiran eta beste hainbat autoreren ideiekin batera, gaur egun daukan nortasun klinikoa lortzera heldu da.

Praktika honen bitartez, garapenean nahasmenduak aurkezten dituzten haurrekin esku-hartzeak jorratzen dira, bakoitzaren mugimendu adierazpenen bitartez lan eginez. Psikomotrizitate praktika hauek, Psikomotrizisten esku geratzen dira, espezialistak diren heinean, prestakuntza zehatzen bitartez. (Rosario, 2012)

Esku-hartze teknika hauek haurren mugimenduetan daukate oinarria eta Heziketa Berezia ematen zaie, eskolan edo banakako tratamenduetan. Horrelako kasuetan haurrek ikaskuntza prozesuan laguntza desberdinak behar izaten ditu, prozesuarekin izan ditzaketen zailtasunak gainditzeko.

Modu beran, Berhezkuntza psikomotorra bezala izendatzen da, Curriculumeko aspektuak egokitu eta moldatu behar diren kasuetan.

- **Psikomotrizitate terapeutikoa**

Psikomotrizitate praktika hauek nahasmendua nabarmena denean egiten dira, hau da, nahasmenduak ez duenean soilik haurraren eskolarekin lotutako arloei eragiten, baizik eta haurraren nortasunean eta honen garapenean, eragina duen nahasmendua denean ematen da. Kasu hauetan, esku-hartzeak banakakoak edo taldekoak izan daitezke, beti ere, psikomotrizista espezializatu baten esku hartzearekin baldin bada.

Saio hauetan, haurraren beharren arabera metodologia berezia erabiliko da, haurraren nahasmenduaren edo nahasmendu horrek eragindako beharren arabera.

Horrelako terapiak egiteko momentuan psikomotrizistaren papera izugarritzko garrantzia izango du. Modu berean, haurren beharretara guztiz egokitutako saioa eta metodologia bermatzea ezinbestekoa ere izango da.



5. Irudia. Psikomotrizitate aplikazio desberdinak

1.2. Aucouturier eta bere metodologiaren egitura

“Praktika psikomotrizitatearen aita da Bernard Aucouturier frantsesa. Txikitatik giro pedagogiko irekian hezia izan zen. Aita irakaslea zuen eta antzerkia asko gustatzen zitzaiona. Freineten laguna zen, eta haren pedagogia jarraitzen zuen. Ama, berriz, ezkerreko militantea zen, gai sozialekin oso konprometitua zegoena eta politikan murgildua zebilena. Giro horretan, gurasoek inoiz ez zuten behartu eskolara joatea, eta nahi zuenean joaten zen.

Haur eskoletan asko ibilia da eta urte askotako eskarmentua du. Arlo teorikoan zein praktikoan jarduna da.” (Aucouturier, 2004)

Aucouturierrek proposatutako metodologia, haurren heltze prozesuan laguntzen dion esku hartze ez zuzentzailearen eredua deritzo. Beraz, esan dezakegu umeari, bere ekintza eta jolas espontaneotik abiatuta, heltze ibilbidean lagunduko diola psikomotrizitate praktikak. Horretarako segurtasun marko konkretu bat eraikitzen da saio bakoitzean.

Aucouturierren heziketa praktika psikomotriza (PPA) haurren heltze ibilbidean lagunduko duen esku-hartze heziketa gisa azaldu daiteke. Praktika psikomotriz honek, adierazpen motrizak izango ditu abiapuntutzat, haurrak momentu horietan

sentituko dituen emozio zein bulkaden bitartez, deszentrazio prozesu batera ailegatuz, hau da, pentsamendu aldira eta heltze psikologikora ailegatuz. Prozesu honetan, haurraren garapena modu global batean gertatuko da eta bere kabuz mundua deskubritzen joango da.

Psikomotrizitate praktika honen helburuak bermatzeko, espazio eta denbora zehatzetan oinarritutako metodologia bat proposatzen du Bernard Aucouturierrek:

“Haurrari heldutasun psikologikoko ibilbide bat egiten laguntzen zaio ekintzatik eta jolasetik abiatuta. Beste modu batera esanda, egitearen plazerretik abiatuta. Hori marko konkretu eta zehatz batean garatzen da, hots, psikomotrizitate aretoan eta ordubeteetan. Bertan bi txoko daude eta horietan haurrak inbesti dezake. Horrek ahalbidetuko dio haurrari gorputzaren plazer libretik hizkuntzaren edo irudiaren bidez adierazteko plazertera pasatzea. Hau da, gorputzetik hizkuntzara doan heldutasun ibilbidea egiten du.” (Aucouturier, 2004)

B. Aucouturierren jarduera psikomotorrean dauden *helburuetako batzuk* hauek dira: (Aucouturier, 2004)

- Haurraren garapen psikologikoan mugimenduak duen garrantzia azaltzea.
- Arlo kognitiboa gorputzarekin eta kanpoko munduarekin dugun harremanaren bitartez garatzen dela azaltzea.
- Haurrak duen lehen ezagutza korporala bermatzea, jarraian ezagutza kognitiboa garatuz joateko.
- Haurren emozioak lantzea, haurrari ikaskuntzara bideratuko duen lasaitasuna eta konfiantza eskuratzeko aukera bermatuz.
- Haurrari deszentrazio bide horretan laguntzeko, oso kontuan hartu behar den prozesu pedagogiko bat bermatzea.
- Hezitzaileak haurraren segurtasun testuinguru horren parte izatera eraman.
- Hezitzaileak haurrari hitza eman eta bere buruaz mintza dadin lagundu, horrek lagunduko baitio haurrari idatzizko komunikazioari gustua hartzen.
- Praktika psikomotrizitatearen kontestua, maila pedagogiko hezitzailean, Haur Hezkuntza osora hedatzea.

1.2.1. Aretoaren egitura

Psikomotrizitate gela, haurren eskura ipintzen diren material espezifiko hornitutako segurtasun espazio bat deritzo. Espazio honetan haurrek haien mugimendu adierazpenak, jolasak, emozioak bizitzen dituzte modu libre batean aldi berean nortasun garapen global bat lortuz. Hau bermatzeko eta psikomotrizitatearen helburuak betetzeko, espazioa eta materialak modu batera edo bestera egituratzen dira haurren beharrei erantzuteko.

Espazioari dagokionez, aretoa bi gune desberdinekin osatuta egongo da. Alde batetik, haurraren errepresentaziorako espazioa, zeina haurren adierazpen grafikoak eta hizkuntza adierazpenak azalduko diren eta bestetik, motrizitate adierazpenerako espazioa, zeina haurren jolasak eta mugimendu adierazpenak sortzeko tokia izango den. Saio bakoitzean haurrari bi gune desberdinetatik pasatzeko proposamena egingo zaie, gorputzarekin jolasteaz gain, sentitzen duten plazerra eta emozioa hizkuntzaren bitartez sinbolizatzeak ere duen plazerra bizitzeko. Modu honetan, haurrak mota desberdinetako sinbolizazioak egiteko aukera izango du, gorputzaren eta hizkuntzaren bitartez, aldi berean, gutxinaka-gutxinaka deszentrazioaren prozesua biziz. (Aucouturier, 2017).

Psikomotrizitate gela esku hartze didaktikoak ahalbidetzen dituen espazio bat ere izan behar da, horretarako material zehatzekin hornitutako espazioa izango da. Gela goxoa, eroso eta segurua izatea ezinbestekoa izango da, giro atsegina bermatzeko eta modu berean ere, haurren mugimenduak eta jolasak sustatzeko espazioa. Gelak honetan haurrak mugitzeko espazio zabala izatea interesgarria izango da, modu honetan haurraren mugimendu adierazpen libreak sustatzeko eta haurren segurtasun fisikoa eta emozionala ere bermatzeko.

Horretaz gainera, psikomotrizitate gela erakargarria eta argitsua izan beharko du, haurren interesa pizteko. Materialak garbiak eta egoera onean egotea ezinbestekoa ere izango da. Gela honen tenperatura, egokia izatea oso garrantzitsua izango da, haurrak jolasten dauden bitartean, eroso eta gustura sentitzeko.

Segurtasun eta konfiantzazko giroaren bidez, haurrek plazerra sentitzeko aukera izanen dute eta horrek, plazer sensoriomotorra, komunikazioa, adierazpen psikomotorra, emozioen adierazpena, nortasunaren garapena... etb. Eragingo du

haurrengan haien garapen globala (emozionala, afektiboa, kognitiboa, motorra...) bermatuz.

Espazio honetan dauden materialak ugariak eta desberdinak izanda ere, oso garrantzitsua izango da, ordena batekin eta modu egoki batetan proposatuak egotea, haurrak gelara sartzen diren momenturako. Haurrak behin kontentzio harresia suntsitu ondoren, nahi duten modura erabili eta antolatu ahalko dituzte materialak, baina haurren interesa pizteko, haiek sartzen diren momenturako proposamena prest egon beharko du, antolatuta eta haurren espektatibei erantzuteko prest.

Psikomotrizitate gela, hezitzaileak haurrengan behatutako behar edo nahien arabera antolatuta egon beharko du, haurretik aipatutako espazioaren egituraketaren ezaugarriak kontutan ere hartuz.

2.Taula. Psikomotrizitate gelako materialen zerrenda

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO MATERIALAK		
	ALTZARIAK	MATERIALAK
MOTRIZITATE ADIERAZPENERKO MATERIALAK	-Espalderak -Ispilua -Bankuak	- Material bigunak: kuxinak, koltxonetak, panpinak, blokeak alfonbra, oihalak, oihalezko txurroak, oihalezko txotxongiloak...
	-Plataforma altuak edo baxuak (salto egiteko igo/jaisteko...)	- Material gogorrak: kutxak, uztailak, sokak, plastikozko kuboak...
ERREPRESENTAZIORAKO MATERIALAK	ALTZARIAK	MATERIALAK
	-Bankuak	-Bankuak, margoak, folioak, plastilina, ipuinak, egurrezko eraikuntzak...
BESTELAKOAK	-Arbela, musika instrumentuak, klarionak...	

1.2.2. Psikomotrizitate saioaren urratsak

▪ **Sarrerako errituala**

Sarrerako erritualak garrantzi handia du, hezkuntza prozesuko motrizitate adierazpenerako une apartari hasiera ematen diolako. Espazio honetan, haurrak haien mugimendu adierazpen askeak azaltzeko espazioa identifikatu eta ezagutu behar dute, modu honetan, segurtasun osoz haien beldur, plazer, desira zein bestelako sentimenduak azaltzeko. Erritual honekin espazio horretara sartzen direla ulertuko dute.

Haurrak sarreran kokatuta dauden bankuetan esertzen dira, hortik gela osoan zehar dauden material eta txokoak ikusteko aukera dute. Jarraian, oinetakoak eta nahi izatekotan jertseak/berokiak kentzeko aukera izango dute. Ondoren, hurrei harrera egiteko:

- Nortzuk falta diren aipatuko dute
- Gelan prestatuta dauden materialen inguruan hitz egingo dute
- Zertan jolastu nahi duten kontatzeko aukera izango dute
- Aurreko saioak gogoratzeko eta zer gustatzen zaien eta zer ez gogoratzeko aukera izango dute
- Arauak bergogoratuko zaizkie:
 1. Lagunei ez diegu minik egin behar, ezta norberaren buruari ere.
 2. Ezin dugu materiala puskatu, eta ezin dugu materiala espazio batetik bestela eraman.
- Haurren galderei edota iritziei lekua utziko zaie

▪ **Motrizitate adierazpenerako denbora**

Sarrera errituala egin ondoren, hurrek badakite helduak eraikitako dorrea suntsitzeko prest jartzeko momentua dela. Eraikita dagoen dorrearen aurrean kokatzen dira eta hezitzaileak “1, 2 etaaaaa... 3!” esatearen seinalearen zain geratzen dira gehienetan izugarrizko ezinegonarekin.

Aldez aurretik, hezitzaileak bloke desberdinekin eraikitako harresi/dorre bat prestatuko du gelaren erdian, guztien artean hiru esaterakoan suntsitzeko helburuarekin.

Momentu horretan, hezitzaileak momentu hori pixka bat luzatzeko, tranpak egiteko aukera izanen du, modu horretan hurrek pultsio eta desioak kontrolatzen/eusten joateko. Garrantzitsua da erruduntasunik ez egotea, kulparik

ez egotea suntsitzean eta haur guztiek suntsiketa horren emozio positiboa sentitzea, momentu horretatik aurrera, bere bizipenei egokitutako jolas edo ekintzak modu libre batean eraiki ahal izateko.

Behin dorrea suntsitu ondoren, ekintza sentensoriomotorrak eta jolas sinbolikoak azaltzen dira haurren ekintzen arten. Normalean haurrak sentensoriomotorretik pasatzen dira mugimendu eta pulstio handiz eta gero, lasaiago, jolas sinbolikoak eraikitzen hasten dira. Hala ere, ez da norantza bakarreko ibilbidea, momentu puntual batean haur batek sentensoriomotorrera jo dezake eta gero sinbolikora bueltatu edo alderantziz.

Ekintza sentensoriomotorraren barruan bi ekintza mota ikusi daitezke, haurren garapen momentuaren arabera:

- *Ekintza propiozeptiboak*: bereziki 0-2 urtetan. Norberarengan zentratua, norbere kontzientzia hartzera bideratuak.
- *Ekintza estereozeptiboak*: 2 urtetik aurrera. Kanpoko mundua ezagutzeko sententzioak. Espazioaren konkista.

3.Taula. Ekintza sentensoriomotorren sailkapena

PROPIOZEPTIBOAK (norberarengan zentratuak)	ESTEREOZEPTIBOAK (inguruan zentratuak)
<p>-Presionatzearen plazerra: gorputzaren mugak eta unitatea sententzioak.</p> <p>-Bultzatzearen plazerra: gerturatu eta urrundu (amarekin harremana...)</p> <p>-Errotazioaren plazerra: kulunkak, bueltak... orekaren sententzioa.</p> <p>-Erortzearen plazerra: haurren lehen esperientziak berbiritzea, besotan eraman zuteneko bizipenak tentsio eta distentsio tonikoak. Haurra ongi eutsia izan bada tonu haustura hauek segurtasunez bizi izan baditu, plazer handia biziko du erorketan. Manipulazioan bizipen txarrak bizi izan baditu, erorketak ez ditu plazer handiz biziko.</p> <p>-Orekaren plazerra: jaiotzetik urtebetera arte haurrak bere muskuloak eta egonkortasuna prestatzen doa ibiltzen hasi ahal izateko. Esperientzia hauek oreka/desoreka egoeretan biziko ditu.</p>	<p>- Sartu/atera, agertu/desagertu: bestearengandik gerturatu eta urruntzea. Estaltzen denean haurrak bestearen begirada bilatzen du.</p> <p>- Desordenatzearen plazerra: ordena dator desordenaren ondoren, haurrak bizipen hauek edukitzea garrantzitsua da psikea egituratzen laguntzen diolako.</p>

<p>-Altueraren konkistaren plazerra: Haurra lurraren gainean eta desplazamenduetan seguru sentitzen denean agertzen da.</p> <p>-Gorputzaren bi aldeen batasunaren plazerra: 3urte behar ditu haurrak gorputzaren simetria bizitzeko.</p> <p>-Sakoneran salto egitearen plazerra: sostengua galtzea suposatzen du, haurrak esperientzia hauek biziko ditu lurrean oreka konkistatu badu.</p> <p>-Gogorraren gainean salto egitearen plazerra: presio handia egiten dute oinekin auto afirmazioa.</p> <p>-Ibiltzea eta korrika egitearen plazerra: ibiltzea espazioaren konkista suposatzen dio haurrari.</p>	
--	--

- **Saioa komentatzeko eta ipuina kontatzeko momentua**

Motrizitate adierazpenerako denborari amaiera eman ondoren, haurrak berriro ere, saioaren hasieran sartzekoan esertzeko erabili ditugun bankuetan, eseriko dira. Mugimendu eta jolasaren bitartez bizi izandakoaren eta errepresentazioaren artean kokatzen da momentu hau eta haurrari distantzia hartzen laguntzen dio. Mugimenduarentzako espazioa utzi eta bankuetan eserita, egindakoaren inguruan eta bizi izandakoaren inguruan hitz egiten da. Gela jolasaren ondoren, gelditu den bezala uzten da eta ezer ezin dute eraman handik bankuetara.

Haurrari mugimendurik gabe, bankuan eserita, saioan zehar egindakoa kontatzea proposatzen zaio; haurrak horrela bizi izandakoa kontatzeko sekuentzializatu eta ordenatuko du gero, besteekin konpartitzeko.



6. Irudia. Saioa komentatzen eta ipuin kontaktetan haurrek bizi duten prozesua

Helduak ikusitakoa itzuliko die, "ispiluaren lana" eginez, bere nortasunaren eraikuntzan eragingo duen islada positibo eta indartzailea itzuliz.

Ondoren, ipuina kontatzen zaie hurrei, haien bizipenak egituratuz eta emozioa mobilizatuz. 2 urte arte eguneroko bizitzako istorioak kontatuko zaizkie,

erasotzailerik gabekoak, eta erasotzailea agertzen doan heinean (2 urtetik aurrera) erasotzailea duten ipuinak (bukaeran erasotzailea ongi desagerraraziz). Erasotzailea 2-3 urte inguruan agertzen hasiko da (otsoa) haurra autonomoagoa izaten hasten delako.

Ipuinaren bitartez haurra berraseguratu egiten da; izan ere, ipuinak hasiera, batean angustia igoko du (otsoak jaten du txanogorritxo etab.) eta ondoren, segurtasun emozionalera bueltatuaraziko du haurra arazoari konponbide bat emanez.

- **Adierazpen plastikorako denbora**

Aurreko fasea behin amaitu ondoren, adierazpen plastikorako denbora eskainiko zaie haurrei. 3 urtetik gora, bizitakoa adierazteko aukera eskaintzen zaie modelatuz (plastilina edo buztina), eraikiz (egurrak) edo marraztuz (marrazkia paperean edo arbelan). 0-2 urteko haurrekin ez da errepresentaziorik egiten ez dutelako deszentratzeko gaitasunik eta hortaz, ezin dutelako bizitako horretatik distantzia hartu. 2 urtetik 3 urtera kurtso bukaera aldera errepresentatzen hasi daiteke, baina batez ere marrazkia erabiltzen, egurrik ez.

Saioan edukitako esperientziak konpartitzeko eta kanporatzeko erabilgarria izango da momentu hau, errepresentatzeko bizipenetik aldentuz eta pentsamendurantz gerturatuz. Errepresentazioaren bitartez, norbere errepresentazioa adierazteko aukera izango dute eta sinbolizatze gaitasun-maila batera heldu daiteke, baita deszentratzea lortu ere.

- **Modelatzea:** plastilina edo buztina. Bere ekintza zuzenaz materiaren transformazioa esperimendatzen du haurrak.
- **Eraikitzea:** Egurrekin (kolorerik gabekoak, forma ezberdinetakoak eta neurri proportzionalekin) operazio logikoak eta pentsamenduaren egituraketa ahalbidetzeko, eraikuntza hauek lurrean egingo dira: egurrekin espazioa bete eta hustu, espazioa egurrak sakabanatu eta multzokatu, orekan jarri, bertikaltasuna bilatu, erorarazi, bota, alineatu, kontrasteak eta simetria esperimendatu, eraikuntza trinkoak egitea, eraikuntza ireki eta itxiak egitea, barruan bereizitako espazioak dituzten eraikuntzak egitea, egitura konplexua duten eraikuntzak egitea; bolumen eta plano ezberdinak erabiliz.

- **Marraskia:** marrazki librearen bitartez haurren istorio afektiboa proiektatzen da. Marraskia banaka egingo da bankuen gainean eta interesgarria da haur bakoitzak bere marrazkiak gordetzeko karpeta bat edukitzea, beraiek bertan han gordetzeko.

Irakasleak eraikitzen ari direnaren inguruan galdetuko die, zer eraikitzen ari diren, zer esan nahi duen.... haien ekoizpenetik abiatuta komunikazioa errazteko. Modu berean, garrantzitsua izango da epaiketak eta interpretazioak ekiditea “ze polita...”

- **Irteerako errituala**

Errutina hau ezinbestekoa izango da saioari amaiera emateko, haurren adinaren arabera modu desberdinetan egiteko aukera egoki desberdinak daude. 3 urte baino gutxiago duten hurrekin, denek ezagutzen duten abesti bat kantatzeak segurtasuna emango die eta denok batera ateratzea ahalbidetuko du. 3 urte baino gehiagoko hurrekin ordea, banan-banan agurtuz eta eskua emanaz, saioari amaiera eman daiteke. Eskua ematearen keinua, hurrek helduen arteko harreman sozialekin harramantzen dute, beraz haiekin egitea asko gustatzen zaie.

Saioaren iraupenari dagokionez, haurren adinaren arabera izango dira. Aurretik azaldutako, saio bakoitzeko, errutina edo fase hauek guztiak egiteko 60 minutu nahikoak izango dira. 0-2 urteko hurrekin, ez dira faserik egongo, hurrei gelako espazio baten erdigunean eskainiko zaizkie materialak eta modu horretan, beraiek hasten dira esperimentatzen. 20-30 minutuko saioak antolatuko dira eta 2 edo 3 aldiz izango dira astean, beraien eguneroko errutinetan txertatuak. Sei urteko hurrekin ordea, 80-90 minutu inguruko saioak antolatu daitezke. (Aucouturier, 2011)

Bestalde, saioaren iraupena haurren interesen arabera ere moldatuz joan daiteke. Haurrak behatuz eta haien interesak ezagutuz, jolasean sartzeko behar duten denbora, jolasten egoteko behar duten denbora... ezagutzen joan behar da, gero, haien behar eta interesen arabera, saioen denborak moldatzeko. Modu honetan, haur bakoitzaren denbora naturala errespetatzen lagunduko digulako.

Saio bakoitzean egon daitekeen haur kopuruari erreparaturaz, egokiena lirateke, hezitzaile bakoitzeko hamar haur inguru egotea. (Aucouturier, 2011)

1.2.3. Psikomotrizistaren jarrera: begirada

Psikomotrizitate saioan zehar haurren ongizatea oso garrantzitsua izango da, ongizate hau, fisiko eta emozionalki bermatu behar da, haurrak modu atsegin batean bizi dezaten saio. Hurrek segurtasuna sentitzeko eta haien garapena emateko, ezinbestekoa duten babes-bilgarri baten sentimendua bermatzea ezinbestekoa izango da eta hori da, psikomotrizistak eskaini edo sentiarazi beharko diona. (Aucouturier, 2011)

Hurrek momentu oro komunikatzeko prest daude eta komunikazio hori bilatzen dute, haien emozioak, nahiak edo ezinegonak gainontzekoekin konpartitzeko. Modu honetan, haurrak bere buruaren berri eman nahi dio gainontzeko haur zein helduei. Horrexegatik, psikomotrizistak haurren mezuei arreta jarri behar diete eta horien zentzua hauteman, hitzez edo keinu, zein emozioen bitartez, haiei erantzun egoki bat emateko. Modu honetan, gutxinaka-gutxinaka, haurren konfiantza finkatzen joango da eta hezitzailearekiko segurtasun afektibo, zein emozionala, bermatuko da. Psikomotrizitate saioetan helduak hurrekin elkarrekintzan jardungo dute, haurrak behatuz eta haien behar eta nahiei erantzunak ematen. (Aucouturier, 2011)

Aldi berea, hurrei hasieratik azaldu beharko zaie, hezitzaileak ez duela haien jolasean modu zuzen batean parte hartuko, baizik eta haien kide sinbolikoa izango dela. Haur da haurren jolasaren parte izango da, baina jokalaria gisa izan ordez, bidelagun gisa. Saio hauetan haurrak ulertu eta entzun behar ditugu, haien beharrak, emozioak, nahiak ezagutzeko eta haiei erantzun bat emateko behar izatekotan. Giro egokia eta haurren gustukoa sortzeko, garrantzitsua izango da, hasieratik hurrek espazio honetan dauden bi arauak ezagutzea, modu honetan, gutxinaka-gutxinaka giro egoki hori bermatzeko. (Anduaga 2019)

Psikomotrizistak psikomotrizitate gelan azalduko da espezialista bezala, horrexegatik, ezinbestekoa izango da bere formakuntza. Formakuntza horretan zehar, plazer sensoriomotorren eta horri lotutako emozioen sentsazioak eragiten dutenaren garrantziaz jabetuko da. Azken finean, psikomotrizistak, haurren plazerraren sentimendua sortzeko, sustatzeko eta garatzeko gaitasuna duten espezialistak dira.

Psikomotrizistaren entzute aktiboa ere beharrezkoa izango da, hitzetatik haratago doana haurrengandik jasotzeko eta emozioen entzutea ere bermatzeko. Funtsezkoa izango da ere, enpatia izatea, haurrak ikuspegi ulerkor batetik ikusteko eta bakoitza den bezalakoa onartu eta ulertzeko. Laburbilduz, psikomotrizistak enpatia, entzute aktiboa, hizkuntza garbia eta zehatza, eta begirada positiboa eta lasaia izate ezinbestekoa izango da.

Modu berean, psikomotrizistak hurrei segurtasunaren sentrazioa sorrarazi behar die, haurrak behar duenean hezitzailearen laguntza jasoko duela jakiteko. Horretarako, hurrei motibatu, ezagutu eta pentsamendu, mugimendu edo emozioen bitartez istorioak azaltzen eta adierazten utzi beharko die. Modu horretan, haurrak, heldua izatearen desira eta plazerrarekin konektatuz, heltze ibilbidea bermatuko da.

Psikomotrizistak estereotipoen inguruan kontzientzia hartu beharko du ere, espezialista bezala, horiekin hausteko eta haurren beharrak erantzunez. Estereotipo kultural eta sozialik gabeko saioak eta proposamenak bermatu beharko ditu, beti ere, integrazioa bultzatuz, haurrak diren modura errespetatuz eta etorkizunean, izan nahi dutena izateko erabakitze askatasuna sustatuz.

4.Taula. Psikomotrizitate saioen egitura

DENBORA	ESPAZIOA	MATERIALAK	EKINTZAK	HELBURUAK
SARRERAKO ERRITUALA	Errepresentaziorako espazioa	Bankuak	Harrera, nortzuk falta diren aipatu, zeran jolastu nahi duten komentatu eta arauak gogoratu	Emozioak, aurreikuspen mentalak egitea, berdinen artean komunikatzea, gelako arauak ezagutzea...
MOTRIZITATE ADIERAZPENERAKO DENBORA	Motrizitate adierazpenerako espazioa	Koltxonetak, blokeak, espalderak, mantak, kojinak, sokak, oihalak...	Korrika egin, salto egin, igo, kulunkatu, desorekatu... Eraikuntza/suntsiketa, agertu/desagertu, bete/hustu jolasak... Rol ezberdinetako pertsonaiekin jolas sinbolikoa...	Norbere irudiaren eraikuntza; erritmoen pertzepzioa; espazio kontzeptua, denbora kontzeptua, matematika kontzeptua etb barneratu; emozioen adierazpen eta kudeaketa; berdinen arteko komunikazioa eta

				harremanak; norbere irudiaren eta autonomia eraikuntza; gizarte rolen trebatzeak...
IPIUNA	Errepresentaziorako espazioa	Bankuak eta ipuinak	Ipuina kontatu eta komentatu	Aurreko mugimenduen ondoren, kontentzioa eta erlaxazioa; sinbolizazio mentala...
ADIERAZPEN PLASTIKOA		Bankuak, margoak, folioak, plastilina, egurrezko eraikuntzak...	Marraskia egin, plastilina moldeatu, eraikuntzak egin...	Pentsamendu operatiboaren garapena; deszentrazio emozionala; kontzeptu ezberdinen barneratzea; irudimenaren garapena...
IRTEERAKO ERRITUALA		Bankuak	Agurra, gehien gustatu zaienaz hitz egin, hurrengo egunean zertan jolastu nahiko luketen aipatu	Agurra eta kontentzio emozionala

2. ATAL PRAKTIKOA

2.1. Praktiketako ikastetxeko psikomotrizitate saioetako metodologia aldaketaren adibidea

Aurretik azaldutako atal teorikoan jorratutako gaiari erreferentzia eginez, jarraian, atal praktiko honetan, Bernard Aucouturier-en metodologiaren erabileraren inguruan arituko naiz. Horretarako, metodologia hau eskola batean erabiltzen hasteko bizi behar den prozesuaren adibide bat azalduko dut, nire praktiketako ikastetxean, metodologia honekin lan egiten hasteko, bizi izan dugun prozesuari erreparatuz.

Edozein eskoletan, aldaketa metodologiko bat egiteak daukan eragina, hezkuntza prozesuaren arlo eta ezaugarri ugarietan azaleratzen da. Azken

finean, eskolan ematen diren aldaketa espazialak edo metodologikoak, haur eta hezitzaileengan eragiten dutelako modu batera edo bestera.

Eskoletan, hezkuntza prozesuari lotutako aldaketak ematen direnean, haurren hezkuntza prozesuan eragiten dute eta horrexegatik, benetako garrantzia eman behar zaie proposatzen diren aldaketa guzti horien prozesuei. Hasieratik bukaeraraino planifikatuz eta behin bukatu ondoren, prozesu horien ondorio edo eraginei ere erreparatuz. Modu horretan soilik lortuko delako aldaketa egoki bat bermatzea.

Gaur egun, Haur Hezkuntzan metodologia aldaketa ugariak daude, ikuspegi desberdinak eta berriak direla eta. Hala ere, aldaketa hauek modu aproposan eginda oso onuragarriak eta aproposak izan arren, kontu handia hartu behar da aldaketa hauek izan dezaketen kontrako eraginekin. Aldaketa edo berrikuntza batek dauzkan eraginak kontutan hartu gabe eskoletan ezartzen badira, berritzearen proposamen bakarrarekin, arazoak eta kalteak eragin ditzaketelako modu zuzenean, haurren hezkuntzako prozesuan eta modu beran ere hezitzaileen lanaren egokitasunean.

Horrexegatik atal honetan azaldu nahi dudana, aldaketa metodologiko baten prozesua deritzo. Kasu honetan nire praktiketako ikastetxean behatu ahal izan dudana prozesu baten azalpena izango da, eta prozesu honek suposatzen duen plangintza eta prozesua azalduko dut. Aldaketa metodologiko bat emateko, aurretik prestatu behar den prozeduraren garrantzia azaltzeko.

2.1.1. Metodologia aldaketa aurreko saioen eredia

Nire praktikak egin ditudan ikastetxean psikomotrizitate saioen metodologia aldaketa proposatu aurretik, ez zuten metodologia zehatz baten jarraipena egiten. Hau da, ez zituzten jarraibide amankomun batzuk erabiltzen Haur Hezkuntza osoko hezitzaileek modu berean haien saioak prestatu zezaten. Egoera hau, gaur egun geroz eta aspektu gutxiagoetan ematen da, garrantzi handia ematen zaiolako Haur Hezkuntzan behintzat, helburu eta balore zehatz batzuk jarraituz, lan egiteko modu amankomun bat jarraitzeari.

Psikomotrizitate saioak prestatzerakoan hiru aspektu hartzen zituzten kontutan: espazioa, materialak eta denbora. Psikomotrizitate saioak talde erdiarekin (12-

13 haur) egiteko planteatzen zituzten eta horietako talde bakoitza, astean behin izaten zuen psikomotrizitate saioa.

Bi mota desberdinetako psikomotrizitate saioak proposatzen zituzten, Psikomotrizitate librea eta Psikomotrizitate gidatua.

- **Psikomotrizitate saio libreak**

Psikomotrizitate saio hauetan talde erdiarekin psikomotrizitate gelara jotzen ziren, han koltxonetak, txurroak, sokak... ateratzen zituzten eta gutxi gora behera 45 minutuko saioak antolatzen zituzten. Saio hauetako helburu nagusia, haurren mugimendu adierazpen librerako denbora eskaintzea zen. Horretarako, hezitzailea ez zen haurren jolasean modu parte-hartzaile batean sartzen eta haurren mugimenduen eta adierazpen motrizen behaketa egiten zuen.

5. Taula. Psikomotrizitate saio libreen eredia

PSIKOMOTRIZITATE SAIO LIBREAK				
ESPAZIOA	MATERIALAK	DENBORA	HELBURUAK	HEZITZAILEAREN JARRERA
Psikomotrizitate gela	-Koltxonetak -Tamaina desberdinetako "foam" piezak -Pilotak -Txurroak -Oihalak -Sokak	45 minutu	Mugimendu adierazpen librerako denbora eskaintzea	Behatzailearen jarrera, haurren jolasak eta mugimenduak behatzeko eta aldi berean haien beharrei erantzuteko

- **Psikomotrizitate saio gidatuak**


Psikomotrizitate saio hauek psikomotrizitate gelan egiten ziren, baina kasu honetan hezitzaileak proposatutako jarduerak egiteko. Modu honetan, hezitzaileak proposatutako jardura horien bitartez, haur bakoitzaren aspektu zehatzagoak behatu eta ebaluatzeko aukera, helburu nagusizat hartzen zuten.

Horretarako jolas gidatuak, koordinazioa eta mugimenduak lantzeko zirkuitoak, ekintza errepikakorrak... proposatzen zitzaizkien haurrei. Modu honetan erabiltzen ziren materialak helburu finko batekin eskaintzen zitzaizkien haurrei

haurretik proposatutako jarduera edo ekintza aurrera eraman ahal izateko. Hona hemen psikomotrizitate saio gidatuen eredu desberdinak:

6.Taula. Psikomotrizitate saio gidatuen ereduak

PSIKOMOTRIZITATE SAIO GIDATUAK					
ESPAZIOA	MATERIALAK	JARDUERA	DENB.	HELBURUAK	HEZITZAILEAREN JARRERA
Psikomotrizitate gela	-Baloiak	-Botatu (esku bat, bi esku) -Gora bota -Golak sartu porterian (hanka, eskuz) -Binaka pasatu (botearekin, boterik gabe) -Hormara bota eta hartu -Ilaran pasatu (buruaren gainetik, hanken azpitik) -Baloj eseriaren jolasa	45 minutu	-Hanka eta besoen koordinazioa landu -Baloj eseriaren jolasa ezagutu	Jarduera proposatu eta gidatu, aldi berean haurren koordinazioa behatu eta ebaluatzeko
	-Bankuak -Uztailak -Pikak -Konoak -Oihalezko tunela	-Zirkuitoa: aurrera, atzera, zutik, eserita, zeharka, etzanda, hankak elkartuta, hanka motzetan... -Zirkuitoa errelebo moduan taldeka egin		-Mugimendu zehatz desberdinen koordinazioa landu -Haurren mugimendu arintasuna landu	



7.Irudia. Koordinazio zirkuituaren ereduak

2.1.2. Metodologia aldaketa egitearen zergatia

Nire praktiketako ikastetxean, aurretik azaldu dudan moduan, aldaketa metodologikoa proposatu zen momenturarte, psikomotrizitate saioak aurrera eramateko jarraibideak ez zeuden batere bateratuak. Haur Hezkuntzako ebaluazio tauletan, mugimendu eta gorputz adierazpenarekin zerikusia zuten hainbat item azaltzen ziren eta horiei erantzuteko, hezitzaile bakoitzak nahi zuen modura planteatzen zituen saioak. Gehienek saio gidatuak eta libreak bereiztu eta txandakatu egiten zituzten, baina saio bakoitzaren barnean proposatutako ariketak eta jarduerak, hezitzaile bakoitzaren arabera moldatzen ziren.

Ikaslearen Izen-abizenak:							
Jaiotze data:							
2 URTE		3 URTE		4 URTE		5 URTE	
Behatzailea:		Behatzailea:		Behatzailea:		Behatzailea:	
Behaketa data:		Behaketa data:		Behaketa data:		Behaketa data:	
GARAPEN ARLOA: MOTORRA ETA FISIKOA							
1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du.	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du.	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du.	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du.
2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko.	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko.	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko.	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko.

8.Irudia. Garapen motorra eta fisikoa ebaluatzeko erabilitako eredua (1)

3	Eskaileretan gora eta behera ibiltzen da barandari edo hormari eutsita.	3	Laguntzarekin eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da.	3	Eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da.	3	Hanka motzean ibiltzen da.
4	Hanka bakarrean mantentzen da pixkatxo batean.	4	Hanka baten gainean egoten da.	4	Atzera nahiz aurrera ibiltzen da.	4	Triangeluak eta bestelako irudi geometrikoak kopiatzen ditu.
5	Korrika egiten hasi da.	5	Erori gabe korrika egiten du.	5	Korrika doanean noranzkoa alda dezake.		
6	Eskailera-maila batetik salto egiten du.	6	Trizikloan ibiltzen da (pedalduna edo gabea).	6	Salto egiten du hanka biekini batera.		
7	Aulki eta sofatarara igotzen da laguntzarik gabe.	7	Pilota ostikoz jotzen, jaurtitzen eta hartzen du.	7	Heldu bati pilota burutik gora jaurtitzen dio.		
8	Pilota ostikoz jotzen du.	8	Marra zuzenak edo zirkuluak kopiatzen ditu.	8	Artaziak erabiltzen ditu.		
9	Zirrimarrak egiten ditu.			9	Zirkuluak eta karratuak kopiatzen ditu.		

9.Irudia. Garapen motorra eta fisikoa ebaluatzeko erabilitako eredu (2)

Ikasturte honetan, ikastolan orientatzaile berria hasi zen lanean, hezitzailea izateaz gain, psikomotrizista ere badena. Orientatzailea eta psikomotrizista den heinean, bere behaketak eta esku-hartzeak, psikomotrizitate saioen bidez aurrera eramaten ditu, haur hezkuntzako haurrekin lan egiten duenean behintzat. Orientatzaile bezala, haurren nahasteak, beharrak... identifikatu eta horiei erantzun bat emateko, haurrak egoera natural batetan behatzeko aukera izatea beharrezkoa ikusten du. Horrexegatik, psikomotrizitate saioak haurren garapen maila modu orokor batean behatzeko aukerarik egokiena iruditzen zaio.

Idea hau, ikastolako haur hezkuntzako hezitzaile guztiekin konpartitu zuen, bere esku hartzeak eta behaketak, horrelakoak izatearen zergatia azaltzeko. Hau azaldu ondoren, Haur Hezkuntzako hezitzaileek haien psikomotrizitate saioak nolakoak ziren azaldu zioten orientatzaileari eta momentu horretan zalantza handiak suertatu ziren.

Alde batetik, orientatzailea, psikomotrizista bezala Aucouturierren metodologian oinarritzen zen bere behaketak eta esku-hartzeak aurrera eramateko eta hori, ikastolan momentu horretan egiten ziren psikomotrizitate saioetatik oso urrun zegoen. Izan ere, ikastolan aurretik azaldu dudak bezala, gabezia handiak zeuden, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioak prestatu ahal izateko. Hasteko, psikomotrizitate saioak egiteko espazioa ez zegoen erabat osatuta ez da beharrezko materialekin hornituta ere. Saio bakoitzerako erabiltzen zen denbora ere ez zen nahikoa, 45 minututako saioak

soilik egiteko aukera zegoelako egutegien antolaketaren ondorioz. Azkenik, hurrekin horrelako psikomotrizitate saioak aurrera eramateko, momenturarte aurrera eramaten ziren saioetan landu beharreko helburu zein edukien aldaketa sakon bat ere, aurrera eramatea beharrezkoa zen.

Bestalde, hezitzaileen artean suertatutako zalantzak desberdinak izan ziren. Ez zeukaten erabat argi orientatzaileak psikomotrizitate saioetan egin nahi zuena, ez zeukatelako inolako formakuntzarik gai horren inguruan. Haientzako, psikomotrizitate saioak haurrak jolasteko eta haien mugimenduaren koordinazioa behatzeko saioak ziren eta ez zeukaten formakuntza espezifikorik gai honen inguruan.

Horrexegatik, guztien artean erabaki zuten, orientatzaileak psikomotrizista bezala zeukan esperientzia eta formakuntza guzti horietaz baliatuz, ikastolako psikomotrizitate saion metodologian aldaketa bat egitea. Orientatzaileak bere esku-hartzeetan erabiltzen zuen psikomotrizitate metodologia aurrera eramaten hasteko; Aucouturierren metodologia.

2.2. Metodologia aldaketa egin aurretik joratu beharreko ardatzak

Aurreko atalean azaltzen den moduan, Haur Hezkuntzako hezitzaile eta orientatzailearen artean, psikomotrizitate saioen inguruan hitz egin ondoren, psikomotrizitate saioen metodologian aldaketa sakon bat ematea beharrezkoa zela ondorioztatu zuten.

Horrelako aldaketa metodologiko bat egiteko, hau da, haurren heziketa prozesuan eragin zuzena daukan aldaketa metodologiko bat egiteko, aldaketa horren alde aurreko lana, izugarrizko garrantzia du, ezinbestekoa da. Aldaketa metodologiko bat proposatu hurretik, momenturarte zegoen egoeraren inguruan hausnartzea oso interesgarria izan daiteke, beharrak identifikatzeko eta aldi berean ere, mantendu nahi diren aspektuak identifikatu ahal izateko. Horrelako aldaketak egiten direnean, ez delako dena bere osotasunean aldatu behar, baizik eta beharrezko aldaketak egin behar dira, aldaketa horiekin, egokiagoa den beste zerbait lortzeko.

Beraz, nire praktiketako ikastetxean, momenturarte prestatzen zituzten psikomotrizitate saioen inguruan hausnarketa orokor bat egin zuten. Ondoren,

proposamen horien gabeziak identifikatu zituzten, modu batera edo bestera behar horiei erantzun bat emateko, proposatu nahi zuten metodologia berri horrekin: Aucouturierren metodologiarekin.

Horregatik, behar eta gabezia guzti horiei erantzun bat emateko helburu nagusiarekin, aldaketa metodologikoa aurrera eramanez aurretik kontutan hartu behar zituzten hiru ardatz hauek identifikatu zituzten: espazioa, denbora eta hezitzailearen jarrera.

Hiru ardatz hauek (espazioa, denbora eta hezitzailearen jarrera) haien metodologia aldaketaren aspektu garrantzitsuenak zirela erabaki zuten. Beraz, horien inguruan hausnartzearen beharra sentitu zuten, argi ikusi zituztelako hiru gauza:

1. Psikomotrizitate gelaren espazioan zeuzkaten gabeziak kontutan hartzen ez bazituzten, ezinezkoa zela Aucouturierren metodologia hori aurrera eramatea.
2. Saioen iraupena luzatzen ez bazuten ezinezkoa zela Aucouturierren metodologia erabiltzen hastea, metodologia horren errutinak aurrera eramateko denbora gehiago behar delako.
3. Metodologia aldaketa bat emateko, hezitzaileen jarrera eta formakuntzaren lanketa ezinbestekoa ikusten zutelako.

2.2.1. Espazioa

Aurreko atalean azaldu dudanez, nire praktiketako ikastetxeko hezitzaileek, psikomotrizitate saioren metodologia aldaketa bat aurrera eramateko, topatu zuten lehendabiziko oztopoa, ikastolako psikomotrizitate gelako espazio fisikoarekin zer ikusia izan zuen. Momenturarte ikastola, psikomotrizitate gela material ugari desberdinekin hornituta zegoen: musika instrumentuak, pilotak, makilak, plastikozko kuboak, txotxongiloak, bankuak... eta horietako bakoitzaren erabilera, irakasleak proposatutako jardueren arabera erabiltzen ziren. Bestalde, espazioa zehar finkatutako hainbat elementu ere bazeuden: materialak gordetzeko altzariak, espalderak, ispilua... baina hala ere, material guzti hauen erabilera edo antolaketa ez zeukan zentzu handirik kasu askotan. Gela hau ez zegoen modu koherente batetan antolatuta, psikomotrizitate saioetan erabiltzen ahal ziren materialetaz beteta baizik.

Horrexegatik oso argi ikusi zuten espazio honek behar zituen aldaketak, Aucouturierren metodologian oinarritutako saioak aurrera eraman ahal izateko, erabilitako materialak helburu bat izan behar zuten eta gelako altzariak eta antolaketa ere, metodologia honen hainbat aspektu bete behar zituzten.

Beraz, ikastolako psikomotrizitate gelak zeuzkan gabeziak identifikatzen eta horiei erantzun bat bilatzen hasi ziren. Proposatu zituzten lehendabiziko aldaketak, espazio honetan zeuden altzarien antolaketaren ingurukoak izan ziren. Materialak gordetzeko altzariak oso aproposak ziren, espalderak ere oso erabilgarriak ziren, baina motrizitate adierazpenerako espazioa sortzeko, altzari gehiago behar zituztela ondorioztatu zuten. Espazio honetan, normalean, hurrek salto egiteko, igotzeko, oreka galtzeko, botatzeko... altuera desberdinetako eraikuntzak erabiltzen dira, baina ikastolan ez zeukaten horrelakorik. Bestalde psikomotrizitate saioetarako beharrezkoak zituzten gainontzeko materialak; oihal zati desberdinak, motrizitate adierazpenerako espazioan jartzeko koltxonetak, harresia eraikitzeko bloke bigunak, kutzak eta "palitroke" bigunak ziren.



10. Irudia. Motrizitate adierazpenerako espazioan erabiltzen diren eraikuntzen eredu bat Psikomotrizitate saioak, Aucouturierren metodologiarekin aurrera eramateko beharrezkoak ziren material eta altzariak identifikatu eta zerrendatu arren, prozesurik zailena, material horiek lortzeko prozesua izan zen. Ikastolan material hauek erosteko diru kopurua oso murrizta zenez, material gehienak hezitzaileen artean egindakoak, etxeetatik ekarritakoa edo berrerabiliak izatea beharrezkoa izan zen.

2.2.2. Denbora

Lan honen marko teorikoan azaldu dudan moduan, Bernard Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saio bat aurrera eramateko, saioa errutina zehatz bati erreparatuz antolatu behar da. Horretarako saioaren iraupena, edo fase guztiak aurrera eraman ahal izateko denbora 60 minututakoa izan behar da, sei urteko hurrekin ordea, 80-90 minututako saioak antolatzea ere aproposa izan daiteke (Aucouturier, 2011)

Horregatik ikastolako hezitzaileek aspektu honi ere erreparatu behar izan zioten, haien psikomotrizitate saio berriekin hasi baino lehen. Momenturarte ikastolako psikomotrizitate saioen iraupena 45 minututakoa zen, aurretik azaldu dudan modua, beraz denbora aldetik ezinezkoa zen Aucouturierren metodologiak planteatzen duen errutina jarraitzea.

Hasiera batean Aucouturierren metodologiaren barne dauden errutinak moldatzea planteatu zuten hezitzaileen artean. Haien proposatutako aldaketa hau zen: Aucouturierren metodologiaren errutina guztiak aurrera eramatea, baina adierazpen plastikoaren denbora, saioak irauteen zituen 45 minutu horietatik kentzea, errutina hori gelan egiteko proposatuz. Laburbilduz, ipuinaren errutinarekin saioari amaiera ematea eta hurrei gelan marrazkia egiteko proposamena eskaintzea planteatu zuten.

Berehala konturatu ziren proposamen hau ezinezkoa zela, Aucouturierren metodologiarekin proposatu nahi zituzten saio horietan, haurren heltze prozesuan eragina izan ez nahi bazuten. Metodologia honek planteatzen dituen errutinetako bakoitzak, haurren heltze prozesuan toki bat hartzen dutelako, beraz, horietako bat kentzerakoan, ez da inolaz ere haurren heltze prozesu hori bermatzen psikomotrizitate saio bakoitzean. Hurrei ez diegulako deszentrazio biderako prozesu horren bizipen guztiak, bizitzen uzten.

Horregatik, aurretik azaldutako ideia hauei erreparatu ondoren, Haur Hezkuntzako ordutegien aldaketa orokor bat egiteko prozesuari ekin zioten. Modu honetan, ordu beteko psikomotrizitate saioak bermatzeko, berrantolaketa bat eginez.

2.2.3. Hezitzailearen jarrera

Aucouturierren metodologian, helduaren jarrera garrantzi handia dauka. Lan honen marko teorikoan azaldu dudan moduan, hurrek segurtasuna sentitzeko

eta haien garapena emateko, ezinbestekoa duten babes-bilgarri baten sentimendua bermatzea oso garrantzitsua izango da, eta hori da, psikomotrizistak eskaini edo sentiarazi beharko diona. (Aucouturier, 2011)

Horretarako, helduek, haurrek adierazten dituzten mezuei arreta jarri beharko diete, hitzez, keinuz edo emozioen bitartez, hauei erantzun egoki bat emateko. Beraz, momentuero helduaren jarrera garrantzia izango du psikomotrizitate saioetan.

Idea hauek ikastolako hezitzaileen artean azaldu ondoren, bakoitzak psikomotrizitate saioetan azaltzen zuten jarrera eta esku-hartzeak azaldu zituzten. Modu honetan, oso modu praktiko batean, konturatu ziren momenturarte aurrera eramaten zituzten psikomotrizitate saioak, guztiz desberdinak zirela, saioa proposatzen zuen hezitzailearen arabera. Kasu batzuetan, hezitzaileek azaltzen zuten haiek prestatutako psikomotrizitate saioetan, haien jarrera behatzailea zela momentuero, modu honetan, haurren beharrei erantzuten, modu zuzen batean esku hartu gabe, beharrezkoa ez zen momentuetan.

Hala ere, hezitzaileen gehiengoak jarrera aktiboago bat zeukatela aitortu zuten. Hauen kasuan, psikomotrizitate saioetan azaltzen zuten jarrera, askoz ere aktiboagoa zen. Haurrentzako proposamenak prestatzen zituzten, baina kasu askotan haiek gidatzen zituzten jarduerak edo ariketak ere erabiltzen zituzten, beraz, askotan hezitzaileak haurren jolas edo jardueretan protagonista bilakatzen zen. Beste kasu batzuetan ere, helduaren rola alde batera utziz, haurren jolasetan modu zuzen batetan parte hartzen zutela azaldu zuten.

Hezitzaileen artean zeuzkaten esku-hartze mota desberdinak amankomunean jarri ondoren, hezitzaile guztien artean modu koordinatuago batean lan egitearen garrantziari erreparatu zioten. Horrexegatik, Aucouturierren metodologian oinarritutako aspektuetan zentratuz, haien psikomotrizitate saioetan, hezitzaile bezala hartu beharko zuten rolaren inguruan erabakiak hartzen hasi ziren.

7.Taula. Metodologia aldaketa egin aurretik, jorratutako ardatz bakoitzaren prozesuaren laburpena

ESPAZIOA	DENBORA	HEZITZAILEAREN JARRERA
----------	---------	------------------------

-Espazio eta materialetan zeuden gabeziak identifikatu.	-Momenturarte saioen iraupenekin zegoen oztopoa identifikatu.	-Hezitzaileen esku-hartze mota desberdinak amankomunean jarri
-Identifikatutako gabeziei erantzun bat emateko aldaketak proposatu.	-Saioen iraupenei lotutako oztopoari erantzun bat emateko zeuzkaten aukerak proposatu.	-Jarrera mota desberdinei erreparatu
-Proposatutako aldaketak aurrera eramateko eta beharrezkoak ziren materialak lortzeko prozesuari ekin.	-Ordutegien moldaketa eta berrantolaketa orokor bat aurrera eraman.	-Aucouturierren metodologian oinarrituta, hezitzailearen rola zehaztu, modu koordinatuago batean lan egiten hasteko.

2.3. Metodologia aldaketa lortzeko, praktiketako ikastetxeak proposatutako prozesuaren eredia

Nire praktiketako ikastetxeko psikomotrizitate saioetan Aucouturierren metodologiarekin lan egien hasi aurretik, aurreko ataletan azaldu dudana haur hezkuntzako hezitzaileen arteko hausnarketa prozesu bat egon zen. Hausnarketa hauen ondorioz, momenturarte diseinatutako psikomotrizitate saioen erabilgarritasuna kolokan jarri zuten, aldaketa metodologiko orokor baten beharra eta zergatia identifikatzeko aukera izan zuten eta metodologia aldaketa bat egiteko prozesuaren diseinuarekin, buru belarri eta elkar lanean hasi ziren.

Jarduera edo proposamen baten metodologia aldaketa bat emateko, garrantzi handia izango du aldaketa hori aurrera eramateko modua, hau da, metodologia aldaketak bat, aurretik antolatutako prozesu baten bitartez aurrera eraman behar den aldaketa bat da, eta ez egun batetik bestera egin daitekeen aldaketa bat.

Horrexegatik ikastolan hasieran egindako hausnarketa orokorraren ondoren eta aldaketa metodologiko baten beharra, oso argi ikusi ondoren, Aucouturierren metodologiarekin psikomotrizitate saioak aurrera eramaten hasteko prozesua diseinatu zuten. Alde batetik, aldaketarako prozesu horren barnean, psikomotrizitate metodologia horrekin saioak aurrera eramateko beharrezko aldaketa fisiko eta espazialei erantzun bat ematen hasi ziren. Bestalde psikomotrizitate saioen iraupena luzatzeko eta Aucouturierren metodologiaren errutinak behar duten denborarekin aurrera eraman ahal izateko aldaketak egin zituzten. Hurrengo pausoa hezitzaileen formakuntzarekin eman zuten, Aucouturierren metodologiari lotutako hainbat aspektu eta jarrera zehaztuz. Eta

amaitzeko, metodologia berri honen adibide bana eskaini zitzairen hezitzaile guztiei, orientatzaileak psikomotrizista bezala daukan formakuntzaz baliatuz.

Jarraian, psikomotrizitate saioen metodologia aldaketa aurrera eramateko, prozesuaren pauso bakoitza nolakoa izan zen, zehatzago azalduko dizuet.


2.3.1. Espazio eta materialei lotutako aldaketa prozesua

Aldaketa prozesu honi, momenturarte psikomotrizitate gelan zeuden material eta altzariei erreparatu ondoren ekin zioten. Espazio honek zeuzkan beharrei, erantzun bat emateko helburuarekin. Momenturarte erabilitako materialak eta gelako altzariak zeukaten erabilgarritasuna aztertu zuten. Ondoren Aucouturierren metodologiarekin diseinatutako saioetan erabilgarriak ziren materialak gorde eta aldiz, erabilgarriak ez zirenak beste gela batera eraman zituzten. Modu honetan, gutxinaka-gutxinaka, material eta altzari egokiekin gela hornituz.

Ikastolako materialekin gela hornitu ondoren, falta ziren material zehatz batzuen falta sumatu zuten, haur da, metodologia honetan oinarrituz, psikomotrizitaterako espazioan beharrezkoak ziren hainbat material. Material horien artean aipagarriena; motrizidade adierazpenerako txokoan egon behar den, mugimendua sustatzeko altzaria zen. Gainera, koltxoneta lodiak, harresia eraikitzeke bloke bigunak, txurro bigunak... ere beharrezkoak ziren.

Material hauek lortzeko ikastolak zeukan aurrekontua oso murrizta zenez, ikastolako materialak berrerabiliz, hezitzaileen artean oihalak josiz eta guraso batzuek eskainitako material batzuetaz probestuz, beharrezkoak ziren materialak sortzen joan ziren.

8.Taula. Eskolan sortutako materialen adibideak

MOTRIZITATE ADIERAZPENERAKO TXOKOAN JARTZEKO ALTZARIAK	
<p>Txoko honetan salto egiteko, igotzeko, oreka galtzeko eta mugimendua orokorrean sustatzeko, ikastolako materialetaz baliatu ziren. Erabiltzen ez zen mahai bat eta egurrezko xafla bat erabiliz, txirrista bat eta salto egiteko txoko bat ere eraikitzeke aukera izan zuten.</p>	 <p>11.Irudia. Berrerabilitako egurrezko xafla</p>

	 <p>12.Irudia. Berrerabilitako mahaia</p>
OIHALEZKO BLOKE BIGUNAK	
<p>Harresia eraikitzeko eta psikomotrizitate saioetan zehar ere erabiltzeko, oihalezko blokeak egin zituzten. Momenturarte ikastolan zeuden blokeak plastikozkoak ziren eta ez zeuden nahikoak harresia eraiki eta haurrak jolastu ahal izateko. Horrexegatik, ikastolako familia batek, lantokitik ekarritako espumazko blokeak erabiliz, oihalezko zorroak josi zituzten hezitzaileen artean, koltxoneta eta harresia eraikitzeko bloke gehiago izateko.</p>	 <p>13.Irudia. Eskuz egindako oihalezko txurroak</p>  <p>14.Irudia. Eskuz egindako oihalezko blokeak</p>

2.3.2. Saioen iraupena eta ordutegien berrantolaketa prozesua

Aurreko atalean azaldu dudan moduan, ikastolan momenturarte, 45 minututako psikomotrizitate saioak antolatzen ziren. Saio hauek ez zeukaten inolako errutinarik eta orokorrean hezitzaile bakoitza bere modura antolatzen zituen.

Horrexegatik, psikomotrizitate saioen metodologia aldaketa planteatu zutenean, berehala konturatu ziren, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioak aurrera eramateko, 45 minutu horiek ez zirela nahikoak. Metodologia honekin saioak errutina desberdinetan antolatuak daude eta beraz, Aucouturierren metodologian azaltzen den moduan, 60 minututako saioak beharrezkoak dira, haurrek haien heltze prozesuaren pauso guztiak saio bakoitzean bizi ahal izateko.

Saioen iraupenarekin zeukaten oztopoa, Aucouturierren metodologiaren errutinetako bat moldatzen, konpontzen saiatu ziren, baina desegokia zela ikusi zuten. Haien proposamena, adierazpen plastikorako errutina kentzea eta gelan egiteko denbora eskaintzea zen. Proposatutako aukera desegokia zela

ondorioztatu zutenean, argi ikusi zuten arazoari aurre egiteko aukera bakarra, ordutegien berrantolaketa bat egitea zela.

Ordutegien berrantolaketa egiteko, Haur Hezkuntzako gela guztien ordutegiak kontutan hartu zituzten, ordutegi guztiei erreparatuz ordutegi berri desberdinak proposatu zituzten, eta azkenean, Haur Hezkuntzako gela guztiek ordu beteko psikomotrizitate saioa izan ahal izateko ordutegia lortu zuten.

9.Taula. Psikomotrizitate gelako ordutegi berriaren eredu

	ASTEL.	ASTEAR.	ASTEAZ.	OSTEG.	OSTIR.
9:15-10:15	3.A-1		4.B-1	FISIO	3.B-2
11:15-12:15	4.A-1	3.B-1	3.A-2	4.A-2	4.B-2
15:00-16:00	5.A-1	5.B-1		5.A-2	5.B-2
10:30-11:00					

Psikomotrizitate gelako ordutegi berrian azaltzen den moduan, berrantolaketa prozesuaren ondorioz, Haur Hezkuntzako gela bakoitzak astero bi saio izateko aukera bermatzen du. Modu honetan, gela erdiko taldeak eginez, haur guztiak astean behin psikomotrizitate saio bat izango dute. 2 urteko hurrek, malgutasun handiagoa izan ahal izateko, egunero ordu erdiko saioa egiteko aukera izango dute, haien beharretara moldatuz.

2.3.3. Hezitzaileen formakuntza

Psikomotrizitate saioetan, Aucouturierren metodologiarekin lan egitearen proposamena planteatu zenetik, hezitzaileen artean, kezkarik nagusiena haien ezjakintasunari lotuta egon zen. Momenturarte ikastolan diseinatutako edo prestatutako psikomotrizitate saioetan, hezitzaileek, rol desberdinak hartzen zituzten, bakoitzak bere ustez egokiagoa zena, baina metodologia honetan oinarritutako saioak aurrera eramateko, argi zeukaten guztiek rol berdina hartu behar zutela, saioetako helburu nagusienak bete ahal izateko.

Marko teorikoan azaltzen den moduan, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioetan, hezitzailea behatzailearen rola hartu

behar du, haurraren bidelaguna izanda, baina haurraren jolasetan gidari bezala parte hartu gabe.

Horretaz gain, behaketaren inguruan ere kezka asko azaldu ziren hezitzaileen arten. Ikastolako hezitzaileek ez zeukaten batere argi zertan zentratu behar zen haien behaketa, zer nolako jarrerak edo ekintzak behatu behar zituzten... Horrexegatik, garrantzi handia izan zuen, hezitzaileei eskainitako formakuntza.

Formakuntza, orientatzaileak eskaini zuen. Aurretik aipatu dudan moduan, orientatzailea izateaz gain, psikomotrizista ere badelako, beraz, formakuntza handiko pertsona bat da. Bere ezagutzetan oinarrituz, eta psikomotrizitatean aditua izanda, dauzkan esperientzietan oinarrituz, hezitzaileei hilabete bateko formakuntza eskaintzea proposatu zuen.

Formakuntza hauek, astean behin prestatutako ordu beteko saioetan eskaini zituen. Lau saiotan banatuta azaldu zuen Aucouturierren metodologia eta psikomotrizitatearen garrantzia, modu honetan hezitzailearen ikuspegitik beharrezkoak ziren oinarrizko ezagutzak eskainiz. Lehendabiziko saioan psikomotrizitateak haurrarengan duen garrantzian zentratu zen, bigarren saioan espazio, material eta denboraren ezaugarritan murgildu zen eta hirugarren eta laugarren saioetan, hezitzailearen jarrerari lotutako informazioa eskaini zien.

Modu honetan hezitzaileak metodologia berriarekin hasteko prest sentitu ziren, eta hasierako zalantzak eta kezkak argitu zituzten, jasotako formakuntza eta material teoriko guztiei esker.

2.3.4. Aucouturierren metodologiarekin aurrera eramandako saioen eredia, psikomotrizista beten eskutik

Metodologia aldaketa lortzeko, praktiketako ikastetxeak proposatutako prozesuaren azkeneko atal honetan, orientatzailearen eredia ikusteko aukera izan zuten hezitzaile guztiek. Orientatzailea, psikomotrizista den heinean, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saio bana eskaini zien Haur Hezkuntzako hezitzaile guztiei.

Ordutegi berrien antolaketa egin ondoren, psikomotrizitate gela hornitu ondoren eta hezitzaileei formakuntza eskaini ondoren, adibide praktiko bat ikusteko aukera izan zuten. Orientatzailea talde bakoitzarekin Aucouturierren

metodologian oinarritutako saio bat gidatu zuen, modu honetan, haur zein hezitzaileek psikomotrizista baten eredu bat izateko eta hortik abiatuta, aurrerantzean eredu hori jarraituz, saioak prestatzeko.

Eredutzat eskainitako saio hauetan, hezitzaile eta orientatzailearen artean espazio eta materialak prestatu zituzten. Jarraian, orientatzaileak psikomotrizitate saioa gidatu zuen, modu honetan haur eta hezitzaileei errutina guztiak jorratzeko eredu bat eskainiz eta errutina hauetako bakoitzean egin beharrekoa azalduz.

Laburbilduz, saio hauen bitartez, hezitzaileek, Aucouturierren metodologiarekin aurrera eramandako psikomotrizitate saio bat, zuzenean eta bere gelako haurrekin, ikusteko aukera izan zuten. Modu honetan, eredu praktikoa bat ikusiz, aurrerantzean prestatu behar izango zituzten saioak nolakoak izan behar ziren ikusteko.

Prozesuaren azkeneko pauso honekin, metodologia berriaren erabilerari ekin zioten ikastolan. Gutxinaka-gutxinaka, hezitzaile guztiek haien gelako haurrekin, orientatzailearen eskutik, aurrera eramandako saioaren ereduak izan ondoren, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioetan guztiz murgildu ziren.

2.4. Metodologia berriarekin landutako saioen analisia

Atal honetan Aucouturierren metodologian oinarritutako saio baten analisia egitea aproposa iruditu zitzaidan. Aurretik azaldu dudako moduan, metodologia honekin ikastolan lan egiten hasi berriak dira, momenturarte ez zutelako metodologia zehatzik jarraitzen, psikomotrizitate saioak prestatzerakoan.

Ikastolan egindako saio baten analisi honen helburu nagusia, saio baten egitura nolakoa izan behar den eta hezitzailearen rola zein izan behar den aztertzea izango da. Horretarako nire praktikuma aurrera eramandako ikastolan egindako saio batean oinarrituko naiz. Hala ere, kontutan hartu behar dugu saioa gidatuko duen hezitzailea ez dela psikomotrizista eta hezitzailea den heinean prestatuko duela saioa.

Saio honetan nire praktiketako gelako haurrak eta hezitzailea izango dira protagonistak, nire jarrera behatzailearena soilik izan zelako, esku-hartu gabe,

kanpoko ikuspegi batetik informazioa jasotzen joateko. Aurretik azaldu dudan moduan, ikastola honetan Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioak aurten prestatzen hasi ziren, beraz, aipatu beharra dago, aztertuko dudan saio hau, metodologia berri honekin aurrera eramandako lehendabiziko saioetariko bat dela.

Beraz, analisi honen bitartez, aukeratutako psikomotrizitate saio honetan gertatutako hainbat aspektu aztertu eta horien inguruan hausnartuko dut. Aucouturierren metodologiaren errutinetan eta hezitzailearen jarreran zentratuko naiz gehienbat, analisi hau egiterakoan. Metodologia berri honen erabilerarekin gehien landu dituzten aspektuak izan direlako. Horrexegatik, analisi honetan ez ditut haurren bizipen zein egoera ezberdinak aztertuko, horrelako analisi bat egiteko saio kopuru asko kontutan hartu behar direlako.

Saio honen analisia egiteko, saioan bertan, baliabide desberdinetaz baliatuz, bildutako informazio desberdinetan oinarritu nintzen, adibidez: bideo grabaketa laburrak, argazkiak eta idatziz jasotako informazioak erabiliz.

2.4.1. Aucouturierren metodologian oinarritutako saioen egituren analisia

Atal honetan Aucouturierren metodologian oinarritutako saioetako baten errutina bakoitzaren analisia azalduko dut. Aurretik aipatu dudan moduan, saio hau, erabiltzen hasi diren metodologia berriarekin egindako lehendabiziko saioetariko bat da.

Analisi honen bitartez, hezitzaileak metodologia honetan oinarritutako psikomotrizitate saioak prestatzerakoan izan ditzakeen zalantzei edo akatsei erantzun bat emateko helburu nagusiarekin egingo dut. Modu honetan, hezitzaileak izan ditzakeen beharrei erantzuteko proposamen bat prestatzeko.

Analisia egiterakoan, saioa prestatzerakoan eta saioa aurrera eramaterakoan jasotako informazio desberdinetan oinarrituko gara. Bideoetan jasotako ekintza zehatzei erreparatuko diegu, behaketaren bitartez jasotako egoeren laburpenak kontutan hartuko ditugu eta baita saioan zehar ateratako argazkietan oinarrituko gara.

Analisia zehatzagoa izan dadin, psikomotrizitate saioan aurrera eramandako errutina desberdinen arabera banatuko dugu analisia:

▪ **Harrera**

Errutina hau gelan sartzeko momentuan bertan hasten da, hurrek zapatak kendu egiten dituzte eta hasierako agurrarekin hasten dira, hezitzaileak psikomotrizitate gelan horretarako prestatutako txoko batean.

Aucouturierren metodologiak zehazten duenari erreparatuz, momentu hau momentu lasaia izan behar da, psikomotrizitate gelako aurkezpena egiteko eta hurrei hasierako agurra emateko. Momentu honetan, hezitzaile banan-banan hurrak agurtu behar ditu eta guztion artean gela honetan dauden arauak bergogoratu behar dituzte (ezin da minik ema eta ezin da minik hartu). Hori egin ondoren, hurrei saio honetan zertan jolastuko diren galdetzea, oso erabilgarria izan daiteke, elkarrizketa labur bat sustatzeko eta modu berean, hurrek momentuan bertan azaltzen dituzten interesak eta nahiak ere ezagutzeko.

Ikastolan egindako saioari erreparatuz, esan daiteke hezitzaileak jarraitutako errutina, Aucouturierrek azaltzen duen errutinaren oso antzekoa izan zela, baina errutina horren hainbat momentuetan izandako jarrera, ez zen era bat lasaia izan.

Psikomotrizitate gelan sartzekoan, hezitzaileak lortu nahi zuen lehengo gauza isiltasuna zen eta momentu horretan hurrak ez zeuden isilik egoteko prest, beraz, hezitzaileari zaila egin zitzaion lasaitasun hori lortzea. Agurra egiterakoan, banan-banan galdetu zien zer moduz zeuden eta zertara jolasteko gogoia zeukaten, beraz agurraren momentua, gehiegi luzatu zen, hurren interesa hainbat momentuetan galduz. Azkenik, denbora aldetik luzeegia izan zenez agurra, arauak bergogoratzeko momentua oso azkar eta garrantzi handirik eman gabe jorratu zuten, hasierako errutina honi amaiera emanaz.

Laburbilduz, hezitzaileak jorratutako gaiak egokiak izan zirela esan daiteke, baina bakoitzari eskainitako denbora desegokia izan zen. Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zait argi azaltzea psikomotrizitate saiora joaten garenean, oso garrantzitsua dela hurrei lasaitasuna transmititzea eta inolaz ere mugimendu edo jarrera aztoratu bat transmititzea. Saioaren hasieran lortu nahi den jarrera lasaia lortzeko, ezinbesteko izango delako hezitzailearen jarrera lasai izatea, gelatik ateratzen garenetik, psikomotrizitate gelara sartzen garen momenturarte, hori izango delako aztertutako saio honetako arazoetako bat eta orokorrean, hezitzaileen artean ematen den akatsetako bat.

- **Harresia**

Errutina honen bitartez, psikomotrizitate saioaren adierazpenerako denborari hasiera ematen zaio ekintza fisiko baten bitartez. Hau da, saioa prestatzerakoan, hezitzaileak blokez osatutako harresi bat eraikiko du gelan, haurren adinaren arabera harresiaren altuera eta tamaina moldatuz, haurrak saioaren harrera egin ondoren, dorre hau bota eta adierazpenerako errutinei hasiera emateko.

Errutina honetan haurren kontentzioa eta interesa handitzeko asmoz, harresia botatzeko hitz gakoak esan aurretik, hainbat hitz desberdin esango dira. Haurrei “tranpa” moduan, hitz gakoak ez diren beste hitz batzuk esango zaizkie eta azkenean, hitz gakoa esaterakoan, haurrek eraikitako harresia bota egingo dute, saioaren hurrengo errutinei hasiera emanez.

Aztertutako saio honetan, momentu hau, haurren gustukoa izan zen. Hezitzaileak, dorrea botatzeko hitz gakoa esan haurretik, hau da, “1,2 eta... 3” esan haurretik, “1,2 eta... Irurtzun” moduko tranpak egin zizkien haurren gogoak erabat areagotuz.

Horregatik esan beharra dago, errutina hau Aucouturierren metodologian azaltzen den moduan edo oso egoera antzeko baten bitartez gertatu zela, haurren kontentzioa eta interesa bermatuz.



15.Irudia. Harresiaren eredua



16.Irudia. Harresia bota aurreko momentuaren eredua

- **Motrizitate adierazpenerako denbora**

Harresia suntsitu ondoren, motrizitate adierazpenerako errutinari hasiera ematen zaio. Horretarako, alde aurretik gelan mugimendu adierazpena sustatzeko materialak prestatu eta proposatu behar dira. Garrantzi handia ematen zaio jolas sensoriomotorrak bermatzeko espazioari eta baita ere, jolas sinbolikoak

bermatzeko espazioari, hauek bi izango direlako errutina honen jarduera nagusienak.

Marko teorikoan azaltzen den moduan, saio hauetan, hurrei ekintza sensoriomotorrak eta sinbolikoak bizitzeko aukera bermatu behar zaie, horretarako, aurretik gela modu egoki batean prestatuz. Hurrek haien interesen eta beharren arabera ekintza sensoriomotorrak edo sinbolikoak biziko dituzte, kasu askotan, saioan zehar, bi ekintza mota hauetatik pasatuz behin baino gehiagotan.



17.Irudia. Ekintza sinboliko baten adibidea



18.Irudia. Ekintza sensoriomotor baten adibidea

Aztertutako saio honetan, ekintza sensoriomotorrak eta sinbolikoak bermatzeko materialak eta espazioak aldeztu aurretik prestatu ziren, espazioa nahiko txikia izan arren, gelan bi zonalde desberdin prestatuz. Hezitzailea behatzailearen rola hartu zuen kasu gehienetan, Aucouturierren metodologiak zehazte duen moduan, baina hainbat momentutan, hasieran aipatutako arauetaz gain, beste arau batzuk ere ezarri zituen. Ekintza sensoriomotorretan gehien bat, haurren arteko kolpeak edo arriskuak ekiditeko helburuarekin, saltoak banan-banan egiteko araua jarri zien hurrei, bestalde, euskararen erabilera ere sustatzeko, hurrei euskaraz hitz egin behar zutela bergogoratu zien behin baino gehiagotan.

Argi dago euskararen erabilera sustatzea eta haurren arriskuak murriztea, hezitzailearen helburu nagusienetariko bat dela momentuero, baina egoera zehatz honetan, psikomotrizitate saioetan, helburua ez da hori. Psikomotrizitate saioaren hasieran, minik ez hartzea eta minik ez ematearen arau bakarra ezarri baldin badugu, argi izan behar dugu, saioa aurrera doan heinean ezingo ditugula arau gehiago jarri eta ez da ere haurren jolasa gure gustura moldatu.

Laburbilduz, oso garrantzitsua izango da prestatutako saioa, haurrentzako arriskurik ez izatea eta euskararen erabilera sustatzeko modua, arau moduan

ez azaltzea. Horretarako hezitzaileak haurren gaitasunak ongi ezagutu beharko ditu, arriskutsuak izan daitezkeen materialak edo proposamenak ekiditeko. Bestalde, euskararen erabilera sustatzeko, haurrei euskaraz hitz egingo zaie beti eta haurrek erderaz esandakoa, euskaraz errepikatuko zaie, modu honetan euskararen erabilera sustatuz eta ez derrigortuz.



19.Irudia. Ekintza sentsorimotorrerako espazioa



20.Irudia. Ekintza sinbolikorako espazioa

▪ Ipuina

Motrizitate adierazpenerako errutinarekin amaitu ondoren, haurrak berriro ere hasierako agurra egindako espazioan kokatuko dira. Momentu horretan, hezitzaileak ikusitakoa hitzez itzuliko die, modu honetan, haurrek, ekintzetatik pentsamendurako bidea eginez. Haur bakoitzari, saioan zehar egindako ekintzen laburpen bat azalduko die hezitzaileak, haurrei ere, hitzez, egindakoa azaltzeko aukera eskainiz. Ondoren, ipuina kontatuko zaie haurrei, haien bizipenak egituratuz eta emozioak mobilizatuz.

Egiten ari naizen analisiarekin jarraituz, aztertutako saio honetan irakurritako ipuina, Elmer elefantearen ipuina izan zen. Nire praktiketako haurrek oso gustukoa duten ipuin bat da, beraz, hau kontatzea aproposa iruditu zitzaion hezitzaileari. Gainera, ipuin honen protagonistak azaltzen dituen emozioak, haurrek ere sentitu ditzaketen emozioen oso antzekoak direnez, oso aproposa zela pentsatu zuen. Haurrak oso gustura entzun zuten ipuina eta Aucouturierren metodologian azaltzen den bezala, haurrei, ekintzetatik pentsamenduetara bideratzeko erabilgarria izan zen.

▪ Adierazpen plastikorako denbora

Errutina hau egiteko, aurreko errutinan erabilitako espazio berdina erabiliko da. Haurrei ipuina kontatu ondoren, adierazpen plastikorako denbora eskaintzen

zaie, modu honetan, haien pentsamenduen adierazpen plastikoa sustatuz. Aucouturierren metodologian oinarritutako saioetan, errutina honek garrantzi handia dauka, haurren adierazpen plastiko libre baten bitartez, haien pentsamenduen azalpen bat egiten dutelako. Horrexegatik, oso garrantzitsua izango da, hurrei adierazpen plastiko libre bat bezala planteatzea, haiek nahi dutena adieraz dezaten eta ez helduak eskatutakoa.

Nik aztertutako saio honetan, hurrei margoak eta paperak eskaini zitzaizkien, haien adierazpen plastikorako momentuan. Hurrei marrazki libre bat egiteko aukera proposatu zitzaien eta bankuetako txokoan, margoak eta paperak erabiliz oso marrazki interesgarriak egin zituzten. Haur batzuk, zer marraztu zezaketen galdetu zioten hezitzaileari eta hezitzaileak aukera desberdina esan zizkien (psikomotrizitate saioan egindakoa, gustukoa duten paisaia...). Hala ere, beste askok haien kabuz erabakitako marrazki mota desberdinak sortu zituzten.

Kasu honetan interesgarria da haurrak marrazkia egiterakoan, bere kabuz erabakitzea zer marraztu nahi duen, zein den adierazi nahi duen pentsamendua edo emozioa, baina egia da, haur batzuei hori kosta egiten zaiela, askotan gidatu egiten dietelako. Hala ere, nire ustez, hezitzaileak marraztu dezaketenaren adibideak eman ordez, egokiagoa izango litzateke, hurrei ongi azaltzea edozer gauza marraztu dezaketela, adibidez: pentsatzen ari diren gauza bat, momentuan sentitzen duten edozer gauza... Modu honetan, haurren adierazpen libre sustatuz eta haurrari marrazki libre bat sortzeko aukera eskainiz.



21.Irudia. Marrazkia egiteko momentuaren adibidea

- **Agurra**

Errutina hau psikomotrizitate saioen azkeneko atala da. Marrazkiak edo edozein kasutan, adierazpen plastikoarekin amaitu ondoren, haurren marrazkiak gorde egiten dira eta bakuen txokoan bertan, saioari amaiera ematen zaio, haurrei amaierako agurra eginez. Momentu honetan hezitzaileak banan-banan agurtu egiten ditu, modu indibidual batean, haurrek haiei egindako agurraren protagonistak sentitu ahal izateko eta zapatak jantzi ondoren, haien gelara itzultzen dira.

Aztertutako saio honetan, agurra egiteko momentua, modu orokorrago batean egin zen. Haur bakoitzari agurra modu indibidual batean (bere izena esanez eta hitz egiteko denbora eskainiz) egin ordez, hezitzaileak modu orokor batean guztiei batera saioaren inguruko iritzia eskatu zien eta haien erantzun orokorrak entzun ondoren, agur orokor baten bitartez, zapatak janzteko denbora eman zien.

Kasu honetan, Aucouturierren metodologiak zehazten duen moduan, interesgarria izango litzateke, haurrei bana-banan, saioaren inguruko iritzia emateko denbora eskaintzea. Gustuko izan dutena, nola sentitu diren, zertan jolastuko diren hurrengo saioan... motatako galderak egitean eta bakoitzari bere iritzia azaltzeko denbora eskaintzean, protagonistak sentiaraziz.

Modu horretan, haur bakoitzari protagonista izateko denbora berdina eskainiz, galdera orokorrak egiterakoan sortzen diren ohiko egoerak saihesteko aukera izango dugu. Hau da, gehien hitz egiten duten haurrei denbora mugatuz eta gutxiago hitz egiten dutenei, haien iritzia azaltzeko denbora eskainiz, haur guztien azalpenak entzuteko aukera bermatuko dugu, agurra indibiduala eta haurrentzako garrantzitsua bilakatuz.

10.Taula. Psikomotrizitate saioaren analisiaren laburpena

PSIKOMOTRIZITATE SAIO BATEN ERRUTINAK	
HARRERA	Giro lasai baten bitartez, psikomotrizitate saioari hasiera emateko errutina. Haurrei hasierako agurra egingo zaie; zer moduz dauden, zertan jolastuko diren... motatako galderak eginez. Askotan, zailena giro lasaia lortzea deritzo, psikomotrizitate saioak hasteko momentuan haurrak aztoratuta daudela. Horrexegatik haurren lasaitasuna bermatzeko jarrera adierazi beharko die hezitzaileak.

HARRESIA	Haurren kontentzioa eta interesa pizteko erabilgarria den momentua. Hezitzaileak gidatuko duenez momentu hau bere jarrera oso garrantzitsua izango da. Haurrei interesa eta harresia botatzeko gogoak sustatuz, hezitzaileak erabakiko du harresia botatzeko momentu zehatza. Garrantzitsua da kontutan izatea errutina hau oso laburra izan behar dela.
MOTRIZITATE ADIERAZPENA	Psikomotrizitate saioaren errutinarik luzeena, zeinetan hurrek jolas librean arituko diren, modu autonomoan. Hezitzailearen jarrera behatzailearena izan beharko da, askotan hurrek arreta deitzen saiatu arren, haien jolasetan esku hartze zuzenik egin gabe.
IPUINA	Egoera lasai batera bueltatzeko egiten den lehendabiziko pausoa. Honen bitartez haurrak haien gorputza gelditu dute eta pentsamenduei ekiten diete. Oso interesgarria izango da haur taldearen arabera, aproposa edo gustukoa duten ipuin baten kontaketa egitea.
ADIERAZPEN PLASTIKOA	Hurrek adierazpen plastiko libre bat egiteko daukaten momentua. Berrito ere egoera lasaia lortzen saiatu beharko gara, haien pentsamenduen adierazpen plastiko bat egiteko giro aproposa bermatuz. Hezitzailea ez du marrazkien inguruko iritzirik adieraziko, hurren adierazpenak entzuteko rola hatuko duelako.
AGURRA	Saioari amaiera emateko erabiliko den azkeneko errutina. Honen bitartez hurren bizipenak, sentimenduak, emozioak... entzuteko momentua bermatuko dugu eta aldi berean haien pentsamenduen azalpenak sustatuko ditugu. Hezitzaileak agurra modu indibidualean egiten saiatuko da, modu horretan bakoitzari protagonismo momentu bat eskainiz.

2.4.2. Hezitzaileen jarrera psikomotrizista gisa

Azkenik, atal honetan, psikomotrizistak kontutan hartu behar dituzten hainbat irizpide azalduko ditut. Kasu honetan, aztertu dudana saioa nire praktiketako aldi behatutako psikomotrizitate saio baten analisia denez, kontutan hartu behar dugu, saioa prestatu eta gidatu duena, ikastolako hezitzailea izan dela. Beraz, ikastolako hezitzaileak, psikomotrizista gisa kontutan hartu behar dituzten hainbat irizpide, azalduko ditut.

Jarraian, hezitzaile edo psikomotrizista gisa kontutan hartu behar ditugun irizpide desberdinak azalduko ditut. Irizpide hauek, jarrerari lotuta egongo dira, psikomotrizitate saioetan hezitzailearen jarrera garrantzi handia izango duelako. Irizpide desberdinen azalpenarekin hasi baino lehen, esan beharra dago, nire praktiketako ikastolako orientatzaileak eskaintako formakuntzari esker,

eskuratutako irizpideak azalduko ditudala, bera psikomotrizista bezala esandakoari eta nik aztertutako saio honetan jasotako behaketei erreparatuz.

Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saio batean, hezitzailearen edo psikomotrizistaren jarrerari erreparatzerakoan kontutan hartu behar ditugu irizpideetako batzuk hauek dira:

- **Haurrarekiko harreman asimetrikoa**

Heldua haurraren jolasean sartzen dela dirudien arren, jolasa aurrera ateratzen lagunduko die hurrei, modu zuzen batean, tartean sartu gabe. Hau da, momentuero haurraren jolasa kanpotik behatuz.

- **Helduak hurrengan azaldu behar dituen iritziekiko autokontrola**

Helduak azaltzen dituen emozio, iritzi edo nahiak izugarritzko eragina daukate hurrengan, kasu honetan hezitzailea haurraren erreferenteetako bat delako. Horrexegatik, garrantzi handia eman behar diogu edozer gauza azaltzerakoan edo iritzia ematerakoan erabiltzen ditugu hitzei. Momentuero, esaten duguna, hurrengan izan dezakeen eragina kontutan hartu behar dugu, beraz haurra epaitu gabe eta bere sentimenduei garrantzia ematen, gure iritziak, emozioak edo nahiak azaldu beharko ditugu.

- **Arauen erabileraren kontzientzia hartzea**

Egunean zehar hezitzaile bezala erabiltzen ditugun arau kopurueta kontzientzia hartu behar dugu. Egia da arauak hainbat momentutan, egoeretan edo eta hainbat espazioetan beharrezkoak direla, esate baterako, psikomotrizitate gelan. Hala ere beharrezkoak ez diren arauak ekiditeko gai ere izan behar gara, askotan beharrezkoak direnak baino askoz ere gehiago erabiltzen ditugulako. Horrexegatik psikomotrizitate gelan ere arau orokor bat jarrita ere (minik ez eman eta minik ez hartu), gehienetan arau gehiago jartzen dira saioa aurrera doan heinean.

Gai honen inguruan kontzientzia hartu behar dugu, arauen erabilerak aztertuz eta benetan beharrezkoak diren edo ez aztertuz. Modu horretan soilik, lortuko dugulako, beharrezkoak ez diren arauen erabilera murriztea.

Modu honetan, psikomotrizitate saioetan, hasieratik azalduko den arau bakarra erabiliko dugu: minik ez eman eta minik ez hartu. Haurrari askatasuna emanaz

eta zigorren beldur egotearen jarrerak ekidituz. Portaera desegokiak edo gatazkak sortzerakoan, jarrera ulerkor batez erantzuten.

- **Segurtasun fisiko eta efektiboa**

Haurren segurtasun afektiboa eta fisikoa bermatzen duen espazioa prestatu beharko dugu beti. Horretarako, saioa prestatzen hasten garen momentutik, erabiltzen ditugun materialei, sortzen ditugun proposamenei... erreparatu beharko diegu, segurtasun fisikoa bermatzeko. Bestalde, segurtasun afektiboari erreparatuz, hezitzaileak hurrekin azaltzen duen jarrerari erreparatu beharko diogu. Haurrak helduaren segurtasuna sentitu behar dute, modu horretan soilik haien ere seguru sentituko direlako eta horrek eragingo dielako mundua deskubritzen jarraitzeko grina eta interesa.

- **Enpatia**


Besteen lekuan jartzen eta bestea nola sentitzen den ulertzen jakin behar du. Kasu honetan, psikomotrizitate saioetan, enpatiak garrantzi handia izango du egoera askotan; gatazkak sortzen direnean, hurrek beharrak adierazten dituztenean... Hezitzaile bezala, haurrak entzun eta haien egoera ulertzeko prest egon behar gara, modu horretan soilik eskainiko diegulako behar duten konfiantza eta segurtasuna.

Modu berean, haurren arteko gatazka batean esku hartzerakoan, oso garrantzitsua izango da hurrei enpatiaz zuzentzea, haien sentimendu edo bizipenei hitzak jarritz eta bizi duten egoeraren azalpen bat eskainiz.

- **Haurren interesari erreparatzea**

Psikomotrizitate saioak haurren interesetara moldatu eta antolatu beharko dira, horretarako, hezitzaileak ongi behatu beharko ditu haurrak haien interesak eta nahiak ezagutzen joateko. Modu honetan, haurren interesak ezagutuz eta haien ahalmenak eta gabeziak behatuz, saioak moldatuz joango dira, haurren interesa sustatuz eta inoiz ez desagerraraziz.

Saioak moldatzeko edo berritzeko, material desberdinen erabilerak eta proposamen aldaketak nahikoak izango dira. Beti ere, talde bakoitzeko haurren interesetara moldatuz.



22.Irudia. Hezitzaileak psikomotrizista gisa jorratu behar dituen aspektuak.

2.5. Psikomotrizitate metodologia berriarekin, saioak aurrera eramateko proposamen ereduak

Atal honetan, Aucouturierren metodologiaren inguruko informazio teorikoa landu ondoren eta nire praktiketako ikastetxeko adibide praktikoak behatu ondoren, prestatu dudana proposamenaren azalpena egingo dut.

Aurretik azaldu dudana moduan, nire praktikak egin ditudan ikastolan, aurreko psikomotrizitate saioen metodologia aldaketa bat aurrera eraman dute. Aldaketa hori egiteko, aurreko ataletan azaldu dudana prozesua diseinatu eta aurrera eraman dute, metodologia aldaketa egiterekin batera hezitzaileen eta haurren beharrei erantzun bat emateko.

Proposamen hau, metodologia aldaketarako prozesua aurrera zihuan heinean bururatu zitzaidan. Ikastolan egindako metodologia aldaketaren prozesuan, garrantzi handia eman diote prozesuak berak daukan garrantziari, beraz niri, prozesu hori amaitzerakoan eta metodologia berriarekin lan egiten hastekoan agertu daitezkeen zalantzei erantzun bat emateko proposamena egitea bururatu zitzaidan.

Azken finean, modu berri batean lan egiten hasten garenean, esku hartzeak egiteko jarraitu behar ditugun irizpideak aldatzen ditugunean... oso ohikoa da batzuetan irizpide berriak ahaztea edo lehen jarraitzen genituen irizpideetara bueltatzea. Horrexegatik, nire proposamena, aldaketa honekin batera egindako aldaketen laburpen taula bat egitea deritzo, hezitzaile bakoitzak bere taula eskura izan dezan, zalantzak agertzen zaizkionean edo metodologia honi

lotutako hainbat irizpide bergogoratu behar dituenean, oso modu simple batean kontsultatu ahal izateko.

Beraz, atal honetan, nire proposamenaren deskribapena egingo du, sortutako taulen egitura azalduz eta egituraren zergatiak ere aipatuz. Laburbilduz, nire proposamenarekin, metodologia berriaren jarraibideak modu laburrean azaldu nahi ditut, Haur Hezkuntzako adin bakoitzari erreparatuz eta ikasturte oso batean prestatu behar diren saioak antolatuz.

Orain arte azaldutako ideiei erreparatuz, proposamen hau martxan jartzeko arrazioak hauek dira:

- Hezitzaileak metodologia berriari oinarritutako psikomotrizitate saioak haien kabuz prestatzen hasterakoan, izan ditzaketen zalantzak ugariak izan daitezkeelako. Momenturarte psikomotrizista baten ereduak ikusi dituzte, formakuntza teorikoa jaso dute, baina askotan, bakarka proposamen bat prestatzerakoan zalantza asko sor daitezke. Horrexegatik nik prestatutako taula bana hezitzaileei emanda, psikomotrizitate saio bat prestatzeko argibide zehatzak eskuragarri izan ditzakete beti.
- Psikomotrizitate saioak ikasturte osoan zehar modu errepikakor batean prestatzeak, haurrek interesa galduaraztea eragin dezakelako. Hezitzaileek proposamen errepikakorrak erabiltzearen jarrera ekiditeko, nik proposatzen ditudan tauletan, hiruhileko bakoitzerako helburu, eduki eta hainbat irizpide zehatz gehiago azalduko ditut. Modu honetan, ikasturte osorako saioen prestatketa eredu berritzaile bat sustatuz.

2.5.1. Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako proposamena

Aurreko atalean azaldu dudan moduan, nire proposamena, Aucouturierren metodologian oinarritutako psikomotrizitate saioak prestatzekoak, hezitzaileek kontsultatu ahalko duten baliabide baten diseinua deritzo. Haur Hezkuntzako maila bakoitzerako taula zehatz bat osatuko dut, zeinetan, hiruhileko bakoitzean diseinatu beharko diren psikomotrizitate saioen zehaztapenak azalduko diren. Taula hauek diseinatzeko, ikastolako orientatzailearen hainbat irizpide eta ezaugarri kontutan hartu ditut, hezitzaile bakoitzari eskainiko zaion informazioa, ikastolako balio eta helburuekin bat egiteko.

Taula hauek psikomotrizitate gelan egongo dira beti eskuragarri. Tamaina handian eta plastifikatuak egongo dira psikomotrizitate gelako armairuaren barruan, modu honetan, hezitzaileek psikomotrizitate saio bat prestatu behar duten bakoitzean, eskuragarri izateko.

Taulan bertan, modu orokor batean, psikomotrizitate saioen testuinguru labur bat azalduko da eta Haur Hezkuntzako kurrikulumari dagozkion helburu orokorrak azalduko dira. Atala orokor horien azpian, Haur Hezkuntzako adin bakoitzari zuzendutako irizpideak azalduko dira, kasu honetan, hiruhileko bakoitzean jarraitu behar direnak zehaztuz. Amaieran, adin bakoitzari zuzendutako ohar orokor batzuk azalduko dira.

Baliabide honen bitartez, hezitzaileek Aucouturierren metodologian oinarritutako saioak prestatzeko jarraibideak, oso modu ikusgarri batean edukiko dituzte. Gainera, ikastolan hezitzaile berri bat egotekotan edo ordezkapen bat egotekotan ere, psikomotrizitate saioak antolatzeko momentuan, eredu moduan erabili ahalako dituzte taula hauek.

11.Irudia. H.H.1. Mailako psikomotrizitate saioen laburena

H.H.1. MAILA

